

# FASE ESPEZIFIKOA

## GEOGRAFIA

MODULUA

ARIKETAK

ERANTZUNAK

PROBA

ERANTZUNAK

BALIABIDEAK ETA  
PROGRAMAZIOA



## Modulua

# GEOGRAFIA

**Unibertsitaterako sarbidea: 25 urtetik gorakoentzat**

**Gutxi gorabeherako iraupena: 90 ordu**



## **AURKIBIDEA**

### **1. AURKEZPENA ETA HELBURUAK**

### **2. EDUKIAK**

#### **1. MULTZOA: ESPAZIO GEOGRAFIKOA (7 ordu)**

Ezagutza-adierazleak

#### **2. MULTZOA: EUROPA ETA EUROPAR BATASUNA (9 ordu)**

Ezagutza-adierazleak

#### **3. MULTZOA: NATURA ETA INGURUMENA ESPAINIAN ETA EUSKAL HERRIAN (18 ordu)**

Ezagutza-adierazleak

#### **4. MULTZOA: JARDUERA EKONOMIKOETAKO ESPAZIO GEOGRAFIKOA ESPAINIAN ETA EUSKADIN (32 ordu)**

Ezagutza-adierazleak

#### **5. MULTZOA: GIZA BALIABIDEAK ETA ESPAZIO ANTOLAMENDUA ESPAINIAN ETA EUSKADIN (24 ordu)**

Ezagutza-adierazleak



## 1. AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Modulu honen kasuan, honako gaitasunak lortu beharko dituzte ikasleek:

- ☐ Espainiako, Euskal Herriko eta Europako ingurune fisikoaren elementuak identifikatzea, eta espazio natural nagusiak zein diren eta non kokatzen diren deskribatu eta zehaztea.
- ☐ Espazio geografiko bat bere askotariko paisaien bidez deskribatzea, eta eskualde biogeografiko zabalagoetan nola artikulatzen den ulertzea.
- ☐ Ingurune naturalak, baliabide naturalek eta produkzio-jarduerek Espainiako, Euskal Herriko eta Europako espazio geografikoaren osaeran duten eragina ezagutzea.
- ☐ Giza taldeek baliabideak nola erabili dituzten aztertzea, eta erabilera horrek ingurumenean izan dituen ondorioak baloratzea.
- ☐ Hainbat eskalatako lurralde-antolamenduaren oinarritzko elementuak identifikatzea eta ulertzea, eta kontzeptu, prozedura eta trebetasun geografikoak erabiltzea espazioa azaltzeko, askotariko faktoreek esku hartzen duten errealitate dinamiko, anitz eta konplexu gisa.

Gizarte-zientzien esparruaren xedeak gizakiak okupatzen eta aldatzen duen espazioa ez ezik, bertan kokatzen diren gizartearen bilakaera historikoa ere barne hartzen du. Esparru horren barruan, Geografiak lur-espazioaren antolamenduaren ikasketa gaineratzen du –lur-espazioa lurraldearen eta bertan diharduen gizartearen arteko erlazioen osotasun dinamiko gisa ulertzen da–. Horrenbestez, gizarte-egiturak eragindako prozesuen ondoriozko errealitate erlatibo, dinamiko eta heterogeneotzat hartzen da espazioa; alabaina, ez da ahaztu behar prozesu horiek aurretik dagoen espazioak berak baldintza ditzakeela. Hala, *Geografia* fenomeno espazialak kokatzeaz eta banatzeaz arduratzen da, fenomeno espazialen lotura eta elkarrekintza arduratzen da. Horrez gain, hainbat egitura eta antolamendu espazial aztertzen eta laburbiltzen dira, eta egitura eta antolamendu horiek eragin dituzten prozesuak aztertzen dira. Laburbilduz, gizartearen eta ingurune naturalaren arteko askotariko harreman estuak dira aztergai.

Espazio-antolamendua eta bere pluraltasuna ulertzen irakastea datza *Geografiak* hezkuntza-prozesuan egiten duen ekarpena, hots, arazoak lurraldearen ikuspuntutik hauteman eta aztertzean, eta ingurunea eta berau osatzen duen gizartea erlazionatzean. Gainera, Geografia lagungarria da baliabide naturalen egoera objektiboa ezagutzeko eta baliabide naturalak adimenez eta erantzukizunez erabiltzeko. Bestalde, zenbait trebetasun eta gaitasun eskaintzen ditu, eta horien artean espazioan jarduteko gaitasuna nabarmentzen da, betiere gaitasun edo kontzientzia espazial gisa ezagutzen dena osatzen duten beste gaitasun batzuk ahaztu gabe.

Gizarte-zientzien esparruaren barruan, honakoak dira Geografiarekin gehien lotzen diren gaiak:

**Espazio geografikoa eta bere paisaia aniztasuna, eta paisaiak eskualde biogeografikoetan artikulatzea.**  
**Espazioa askotariko eskaletan, eta bertan gertatzen diren eraldaketak.**  
**Ingurunea eta ekintza antropikoa.**  
**Azterketa geografikoaren prozedura bereizgarriak.**  
**Lurralde-antolamenduko sistemak.**  
**Gaur egungo arazoak (ingurumenekoak, espazialak, demografikoak eta abar) eta etorkizunerako proiektzioa.**

Zientzia geografikoaren barruan jorratu diren ikuspegi metodologikoen eta paradigmen aberastasuna dela-eta, zientzia geografikoaren arlo didaktikoak bere egin beharko ditu azken hamarkadetan definitu diren askotariko ekarpenetako batzuk (geografia humanista, pertzepzioaren geografia, geografia erradikala edo geografia berria); haatik, ez ditu ahaztu behar kuantitatibismotik edo eskualde-geografiatik egindako ekarpenak, ezta espezialitate geografikoetatik egindakoak ere (geografia ekonomikotik, populazioaren geografiatik,





biogeografiatik,...). Ikuspegi bakoitzaren berezko kontzeptu, metodo eta teknika nagusiak sendotzera bideratu beharko dira Geografiaren tratamendu didaktikoak eskatzen dituen irakatsi eta ikasteko estrategiak; izatez, Geografia diziplinariako gaia dela eta aplikazio praktiko ugari eta berehalako erabilera duen ezagutza dela hartu beharko da aintzat.

Horrenbestez, gizabidezko balio eta jarrerak eta ingurumen-arlokoak garatzeaz gain, autonomia intelektuala erraztuko duen ikaskuntza sustatu nahi da. Horretarako, ikerketa-lanak egin beharko dira, eta errealtate geografikoa ulertzeko leku interesgarrietara bisitaldiak egingo dira eta hedabideez baliatuko da. Grafikoen, serie informatiboen eta mapen edo kartogramen erabilera funtsezkoa da azterketa geografikoan, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek eskaintzen dizkiguten baliabideak oso erabilgarriak zaizkigu.

Modulu honen eskaintza aintzat hartuko duen edozein prestakuntza-prozesuetarako programazioa egitean, ondoren zerrendatzen diren “*edukiak*” hartu beharko dira kontuan, eta “*ezagutza-adierazleak*” atalean deskribatzen diren maila eta hedadura izan beharko da aintzat. Izatez, azken horiek ebaluazio-irizpideak dira, eta, eduki-multzo bakoitzerako gai eta ereduak ariketa diren aldetik, pertsonen jakin behar duten edo egiten jakin behar duten alderdirik funtsezko eta kritikoenak adierazi nahi dituzte.

## 2. EDUKIAK

### 1. MULTZOA: ESPAZIO GEOGRAFIKOA (7 ordu)

#### **Espazio geografikoaren nozioa eta ezaugarriak:**

- Ingurune naturalaren elementuak: erliebea, klima, landaredia eta hidrografia.
- Paisaia.
- Zonalitate geografikoa.
- Giza jarduerak.

#### **Informazio eta irudikapen geografikoko tresnak:**

- Kartografikoak.
- Estatistikoak.
- Dokumentalak.

#### **Kokapen eta banaketa espazialak aztertze nozioak:**

- Orientazioa eta lekua mugatzea.
- Koordenatuak eta eskalak.

#### **EZAGUTZA ADIERAZLEAK:**

- 1.1. *Arlo geografikoaren informazio-tresnak ezagutzea eta erabiltzea, eta jasotako informazioaren fidagarritasuna eta objektibotasuna egiaztatzea.*
- 1.2. *Behaketak egitea eta datuak erregistratzea, zuzenean edo zeharka, tresnak eta baliabide geografikoak zorrotasun zientifikoz erabiliz.*
- 1.3. *Hainbat behaketen emaitzak aurkeztea, teknika grafikoak eta ikus hizkuntzak erabiliz.*
- 1.4. *Fenomeno geografikoen interpretazioa eta sistema konplexuen ulermena erraztuko duten tresnak erabiltzea.*



## 2. MULTZOA: EUROPA ETA EUROPAR BATASUNA (9 ordu)

### Europar Batasuna sortzeko prozesua:

#### Integrazio europarreko prozesuaren etapak:

- Europako Erkidegoetatik Europar Batasunera.

#### Europar Batasunaren lurralde-egitura eta erakunde-egitura:

- Europar Batasuneko erakundeak: Europako Kontseilua, Europako Parlamentua, Europako Batzordea, Justizia Auzitegia.
- Europar Batasuneko legeria.
- Europar Batasuneko politikak: gizarte, industria, ingurumen, garraio eta eskualde arlokoak.

#### Espainia Europar Batasunean:

- Aurrekari historikoak.
- Integrazioa argitzeko faktoreak.
- Gaur egungo egoera eta etorkizuna.

### EZAGUTZA ADIERAZLEAK:

- 2.1. *Espainia Europar Batasunean sartzeko prozesuaren ondoriozko lorpenak, arazoak eta aldaketak identifikatzea.*
- 2.2. *Europar Batasuna sortzeko prozesuaren ondoriozko lorpenak, arazoak eta aldaketak identifikatzea.*
- 2.3. *Europar Batasunaren lurralde-egitura eta erakunde-egitura ezagutzea, baita Europar Batasuneko erakundearen funtzioak, osaera eta funtzionamendua ere.*

## 3. MULTZOA: NATURA ETA INGURUMENA ESPAINIAN ETA EUSKAL HERRIAN (18 ordu)

### Espainiako eta Euskal Herriko ingurune naturalaren ezaugarri orokorrak:

- Dibertsitate geologikoa eta morfologikoa.
- Klima.
- Hidrologia eta landaredia.

### Espainiako eta Euskal Herriko multzo natural handien aniztasuna:

- Elementu geomorfologikoak.
- Egiturazko elementuak.
- Klimatikoak eta biogeografikoak.

### Espainiako eta Euskal Herriko natura eta ingurumena:

- Egoera, baldintzatzaileak eta arazoak.
- Espazio naturalen babesa.

### EZAGUTZA ADIERAZLEAK:

- 3.1. *Espainiako eta Euskal Herriko ingurune naturala osatzen duten erliebe, klima, ur eta elementu biogeografikoen ezaugarri fisiko nagusiak identifikatzea, kokatzea eta baloratzea.*
- 3.2. *Espainiako eta Euskal Herriko espazio geografikoaren dibertsitatea eta pluraltasuna ezagutzea eta ulertzea; izatez, espazio geografiko horrek kontraste handiak eta lurralde-konplexutasun handiak ditu, gizartea, kultura eta lurraldea modu independentean modelatu dituzten faktore naturalen, historikoen eta antolamendu espazialekoen ondorioz.*



- 3.3. *Ingurune naturalak, baliabide naturalek eta produkzio-jarduerak Espainiako eta Euskal Herriko espazio geografikoaren osaeran betetzen duten funtzioa aztertzea.*

#### **4. MULTZOA: JARDUERA EKONOMIKOETAKO ESPAZIO GEOGRAFIKOA ESPAINIAN ETA EUSKADIN (32 ordu)**

##### **Lehengaiak eta energia-iturriak.**

##### **Espainiako eta Euskadiko faktore sozio-ekonomikoak:**

- Gaur egungo panorama eta etorkizuna.
- Espainia eta Euskadi ekonomia globalizatuan.

##### **Landa-espazioak:**

- Landa-jardueren aldaketa eta dibertsifikazioa, eta horrek askotariko espazio-tipologietan duen isla.
- Nekazaritzako Politika Bateratuak Euskal Herriko eta Espainiako nekazaritzan duen eragina.
- Nekazaritza iraunkorra.
- Nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako ustiapenak.
- Arrantza-jarduera.
- Arrantza-eskualdeak eta ustiatutako espezieak.

##### **Industria-espazioak:**

- Industria-kokapena.
- Espainiako eta Euskal Herriko industriaren gaur egungo lurralde-joerak.

##### **Zerbitzu-espazioak:**

- Espainiako ekonomiaren hirugarren sektoreranzko prozesua.
- Zerbitzuen heterogeneotasuna eta lurraldean duten eragina.
- Garraioak eta komunikazioak.
- Merkataritza.
- Hirugarren sektorea Euskadin.

##### **Espazio turistikoak:**

- Espainiako eta Euskal Herriko garapen turistikoaren faktoreak.
- Eskualde turistikoen tipologia.
- Turismoak espazioan duen eragina.

##### **Garapen iraunkorraren printzipioak. Garapen ekonomikoa eta ingurumen natural eta sozialarekiko errespetua.**

#### **EZAGUTZA ADIERAZLEAK:**

- 4.1. *Espainiako eta Euskal Herriko espazio produktiboen ezaugarriak sailkatzea, deskribatzea eta aztertzea, landako, industriako, produkzio energetikoko eta zerbitzuko espazio produktiboen ezaugarriak, hain zuzen ere.*
- 4.2. *Jarduera sozio-ekonomikoaren funtsezko arazoak identifikatzea, eta Europar Batasuneko kide izateak eta egoera orokorrak bertan duten eragina ebaluatzea, betiere kokapen-faktoreek, lurralde-banaketak, emaitzazko espazio-tipologiek, eta produkzio-jarduerak espazio geografikoari dagokionez dituzten joerak azalduz.*
- 4.3. *Jarduera ekonomikoaren funtzionamendua, mekanismoak eta eragileak ezagutzea eta bereiztea. Sistema ekonomiko nagusiak eta oinarri geografikoa.*
- 4.4. *Ekonomiaren globalizazioaren edo ekonomia mundu-mailako egitearen ondoriozko arazo nagusiak eta eragiten dituen bazterketak geografikoki aztertzea, eta teknologia berriek gaur egungo gizartean duten egitekoa baloratzea.*



## 5. MULTZOA: GIZA BALIABIDEAK ETA ESPAZIO ANTOLAMENDUA ESPAINIAN ETA EUSKADIN (20 ordu)

### **Euskadiko eta Espainiako egitura demografikoa:**

- Populazioaren banaketa.
- Aldaketa sozialak eta ekonomikoak, eta aldaketa horiek herritarrengan duten eragina.
- Gaur egungo immigrazioaren fenomenoak.

### **Euskadiko eta Espainiako urbanizazio-prozesua:**

- Hiri-hazkundeko ereduak.
- Hiri-fenomenoaren konplexutasuna.
- Hiri-morfologia.
- Hiri-funtzioak eta lurzoruen erabilera.
- Hiriko ingurumen-problematika.

### **Euskadiko eta Espainiako lurralde Antolamendua 1978ko Konstituzioan:**

- Autonomien Estatua: jatorria, prozesua eta mapa autonomikoa.
- Autonomia Erkidegoetako bakoitzaren oinarritzko ezaugarri geografikoak.

### **Lurralde-desorekak:**

- Autonomia Erkidegoen arteko kontraste espazialak:
  - ◆ Desberdintasun demografikoak.
  - ◆ Desberdintasun sozio-ekonomikoak.
  - ◆ Eskualdeen arteko desoreka Espainian eta Euskadin.

## **EZAGUTZA ADIERAZLEAK:**

- 5.1. *Espainiako eta Euskadiko alderdi demografikoak, eta beren dinamika eta egitura aztertzea; eta alderdi horiek espazioan dituzten ondorioak eta etorkizunerako igurikimenak ezagutzea, superpoblazioaren, migrazioaren eta zahartzearen kontzeptuak hainbat eskalatan aplikatuz.*
- 5.2. *Espainiako eta Euskal Herriko urbanizazio-prozesua interpretatzea, gaur egungo hiri-sistemaren konfigurazioa azaltzeko. Hiri baten egituraren elementuak eta horien dinamika identifikatzea eta gizarte-antolamenduak gaur egungo bizitzan eta landa-ingurunearen aldaketan duen eragina azaltzea.*
- 5.3. *Lurralde-antolamenduaren oinarritzko elementuak identifikatzea eta ulertzea, eta bereziki geografikoak diren kontzeptuak, prozedurak eta trebetasunak erabiltzea, espazioa askotariko faktoreek esku hartzen duten errealitate dinamiko, anitz eta konplexu gisa azaltzeko.*
- 5.4. *1978ko Konstituzioaren ondoriozko Espainiako lurralde-antolamendua –Autonomia Erkidegoetan oinarritua– deskribatzea, eta Autonomia Erkidegoen ezaugarri geografiko bereizgarrienak identifikatzea, Espainiaren pluraltasun historikoa, kulturala, sozio-ekonomikoa eta espaziala ulertu eta baloratzearen.*
- 5.5. *Autonomia Erkidegoen artean eta horietako batzuen barruan gertatzen diren lurralde-kontraste nagusiak bereiztea, Espainian dauden lurralde-desorekak aztertzea. Eskualde-garapenerako Europako politikak ezagutzea.*



**EZAGUTZA ADIERAZLE OROKORRAK ETA EDUKI MULTZO GUZTIETARAKO  
ZEHARKAKOAK:**

- O.1. *Alderdi edo gai geografikoei buruzko hainbat iturritako informazio garrantzitsuak lortzea eta erabiltzea.*
- O.2. *Errealitate geografikoaren informazio-iturri gisa mapak, krokisak, grafikoak eta taulak interpretatzea eta lantzea.*
- O.3. *Askotariko fenomeno geografikoak irudikatuko dituzten eskemak, taulak, grafikoak eta abar egitea.*
- O.4. *Lur-espazioaren askotariko irudiak eta bestelako errepresentazioak erabiltzea, eta eskalan egindako mapak eta grafikoak interpretatzea.*



## EDUKI BLOKEEN EZAGUTZA ADIERAZLEEI DAGOZKIEN ARIKETEN ADIBIDEAK


| MULTZOA | EZAGUTZA ADIERAZLEAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    | ARIKETAK  |
|---------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| 1       | 1.1. Arlo geografikoaren informazio-tresnak ezagutzea eta erabiltzea, eta jasotako informazioaren fidagarritasuna eta objektibotasuna egiaztatzea.                                                                                                                                                                                                                      | 1         |
|         | 1.2. Behaketak egitea eta datuak erregistratzea, zuzenean edo zeharka, tresnak eta baliabide geografikoak zorroztasun zientifikoaz erabiliz.                                                                                                                                                                                                                            | 2         |
|         | 1.3. Hainbat behaketen emaitzak aurkeztea, teknika grafikoak eta ikus hizkuntzak erabiliz.                                                                                                                                                                                                                                                                              | 3         |
|         | 1.4. Fenomeno geografikoen interpretazioa eta sistema konplexuen ulermena erraztuko duten tresnak erabiltzea.                                                                                                                                                                                                                                                           | 4         |
| 2       | 2.1. Espainia Europar Batasunean sartzeko prozesuaren ondoriozko lorpenak, arazoak eta aldaketak identifikatzea.                                                                                                                                                                                                                                                        | 5,6       |
|         | 2.2. Europar Batasuna sortzeko prozesuaren ondoriozko lorpenak, arazoak eta aldaketak identifikatzea.                                                                                                                                                                                                                                                                   | 6         |
|         | 2.3. Europar Batasunaren lurralde-egitura eta erakunde-egitura ezagutzea, baita Europar Batasuneko erakundeen funtzioak, osaera eta funtzionamendua ere.                                                                                                                                                                                                                | 7         |
| 3       | 3.1. Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurune naturala osatzen duten erliebe, klima, ur eta elementu biogeografikoen ezaugarri fisiko nagusiak identifikatzea, kokatzea eta baloratzea                                                                                                                                                                       | 8         |
|         | 3.2. Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko espazio geografikoaren dibertsitatea eta pluraltasuna ezagutzea eta ulertzea; izatez, espazio geografiko horrek kontraste handiak eta lurralde-konplexutasun handiak ditu, gizartea, kultura eta lurraldea modu independentean modelatu dituzten faktore naturalen, historikoen eta antolamendu espazialekoen ondorioz. | 9, 10, 18 |
|         | 3.3. Ingurune naturalak, baliabide naturalek eta produkzio-jarduerek Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko espazio geografikoaren osaeran betetzen duten funtzioa aztertzea.                                                                                                                                                                                       | 11        |
| 4       | 4.1. Espainiako eta EAeko espazio produktiboen ezaugarriak sailkatzea, deskribatzea eta aztertzea, landako, industriako, produkzio energetikoko eta zerbitzuko espazio produktiboen ezaugarriak, hain zuzen ere.                                                                                                                                                        | 14        |
|         | 4.2. Jarduera sozioekonomikoaren funtsezko arazoak identifikatzea, eta Europar Batasuneko kide izateak eta egoera orokorrak bertan duten eragina ebaluatzea, betiere kokapen-faktoreek, lurralde-banaketak, emaitzazko espazio-tipologiek, eta produkzio-jarduerek espazio geografikoari dagokionez dituzten joerak azalduz.                                            | 6         |
|         | 4.3. Jarduera ekonomikoaren funtzionamendua, mekanismoak eta eragileak ezagutzea eta bereiztea. Sistema ekonomiko nagusiak eta oinarri geografikoa.                                                                                                                                                                                                                     | 13        |




|   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |          |
|---|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------|
|   | 4.4. Ekonomiaren globalizazioaren edo ekonomia mundu-mailako egitearen ondoriozko arazo nagusiak eta eragiten dituen bazterketak geografikoki aztertzea, eta teknologia berriek gaur egungo gizartean duten egitekoa baloratzea.                                                                                | 14       |
| 5 | 5.1. Espainiako eta Euskadiko alderdi demografikoak, eta beren dinamika eta egitura aztertzea; eta alderdi horiek espazioan dituzten ondorioak eta etorkizunerako iguripenak ezagutzea, superpoblazioaren, migrazioaren eta zahartzearen kontzeptuak hainbat eskalatan aplikatuz.                               | 15       |
|   | 5.2. Espainiako eta Euskadiko urbanizazio-prozesua interpretatzea, gaur egungo hiri-sistemaren konfigurazioa azaltzeko. Hiri baten egituraren elementuak eta horien dinamika identifikatzea eta gizarte-antolamenduak gaur egungo bizitzan eta landa-ingurunearen aldaketan duen eragina azaltzea.              | 16       |
|   | 5.3. Lurralde-antolamenduaren oinarritzko elementuak identifikatzea eta ulertzea, eta bereziki geografikoak diren kontzeptuak, prozedurak eta trebetasunak erabiltzea, espazioa askotariko faktoreek esku hartzen duten errealitate dinamiko, anitz eta konplexu gisa azaltzeko.                                | 17       |
|   | 5.4. 1978ko Konstituzioaren ondoriozko Espainiako lurralde-antolamendua –Autonomia Erkidegoetan oinarritua– deskribatzea, eta Autonomia Erkidegoen ezaugarri geografiko bereizgarrienak identifikatzea, Espainiaren pluraltasun historikoa, kulturala, sozio-ekonomikoa eta espaziala ulertu eta baloratzearen. | 9, 18    |
|   | 5.5. Autonomia Erkidegoen artean eta horietako batzuen barruan gertatzen diren lurralde-kontraste nagusiak bereiztea, Espainian dauden lurralde-desorekak aztertzea. Eskualde-garapenerako Europako politikak ezagutzea.                                                                                        | 5, 6, 10 |



1. Begiratu arretaz bi mapa hauek. Biek ere Lurra adierazten dute baina batek Mercator proiektzioaren arabera eta besteak Peters proiektzioaren arabera. Esan proiektzio bakoitza zein mapari dagokion. Aurkitu proiektzio bakoitzari buruzko informazioa eta ondorengo koadroan idatzi bien artean dauden ezberdintasunak eta azaltzen duten fidagarritasun maila.



<http://mercator.upc.es/Cataleg/MERCATOR/TOT.HTM>



<http://club.telepolis.com/geografo/general/peters.htm>





| MERCATOR PROIEKZIOA | PETERS PROIEKZIOA |
|---------------------|-------------------|
|                     |                   |


**2. Begiratu arretaz argazki hau eta egin iruzkin bat.**



<http://www.panama1.com/gobierno.php>



3. Begiratu arretaz “Munduko analfabetismoa 2000. urtean” izeneko mapa hau. Saiatu honen interpretazio bat ematen eta azaldu arrazoi eta ondorio batzuk.



[http://www.uis.unesco.org/en/stats/statistics/ed/lit\\_esp/map\\_monde2000\\_ESP.jpg](http://www.uis.unesco.org/en/stats/statistics/ed/lit_esp/map_monde2000_ESP.jpg)

4. Begiratu arretaz munduko bola eta esan bertako lerroek zer adierazten duten eta zertarako diren. Bilatu honi buruzko informazioa.



<http://www.inai.org.ar/nuevo/mundo.jpg>



5. Jarraian azaltzen diren dokumentuak Espainiari eta Europar Batasunari buruzkoak dira. Irakurri dokumentuak eta jarri taulan alderdi onak eta hain onak ez direnak.

1. dokumentua

**Ekonomia/Nekazaritza.- Espinosak astelehenean adostuko du Espainiak azukrearen erreformari buruzko proposamenaren aurrean izango duen jarrera.**

MADRIL, 1 (EUROPA PRESS)

2004ko uztailaren 1a, 18:57

Elena Espinosa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministroa, hurrengo astelehenean bilduko da Franz Fischler europar komisarioak azukrearen Merkatu Antolakunde Bateratuaren (MAB) erreformaren oinarri moduan idatzitako dokumentua dela eta arlo bereko autonomia erkidegoetako sailburuekin. Hori da arloko iturriek Europa Pressi gaur jakinarazi diotena.

Ministroaren helburua Espainiaren jarrera adostea da, honela dokumentua blokeatu eta Komisarioen Elkargora azukrearen erreforma formal gisa aurkeztu ez dezaten, izan ere, gaur egungo egoeran erreforma aplikatzeak Espainiako laborantza eta industria elkartuak desagertzea ekarriko luke.

Honela, Espinosa Andaluziako, Gaztela Leongo, Gaztela-Mantxako, Errioxako, Euskal Herriko eta Extremadurako nekazaritza sailburuekin bilduko da, autonomia hauek baitute erremolatxa eta kanabera ustiaketa gehien.

Bestalde, nekazaritza titularrak gutun bat idatzi dio Fischlerri erreforma dela eta sektoreak bizi duen kezka jakinarazteko eta, era berean, Europako Batzordeko lehendakariordea eta Garraio eta Energia kontseilariarekin, Loyola de Palaciorekin nahiz Ekonomi eta Moneta arazoetarako Kontseilariarekin, Joaquín Almuniaekin jarri da harremanetan.

Sektorearen arabera, dokumentu proposamen honen erabakiek Espainian erremolatxaren laborantzan oinarritzen diren 18.000 ustiapen desagertzea ekarriko lukete eta ustiapen hauetatik 300.000 familia bizi dira, batez ere Andaluzia, Gaztela Leonen, Espainia iparraldean eta Gaztela-Mantxan.

<http://labolsa.com/noticias/20040701185724/>



## 2. dokumentua

[http://www.canariasahora.com/portada/editar\\_noticia.asp?idnoticia=44491&idtemageneral=2](http://www.canariasahora.com/portada/editar_noticia.asp?idnoticia=44491&idtemageneral=2)

### Asteartea, 2004ko ekainaren 29a **%36AK DIO KARTA MAGNA KOMENIGARRIA DELA BAINA EZ GARRANTZITSUA**

**Biztanleriaren %65aren arabera Europako Konstituzioak erreferendum bat pasa beharko luke Espainiarren %65,7ak Europako Konstituzioari buruzko akordioa onartu baino lehen erreferendum bat egin beharko litzatekeela uste du eta %36,3ak Karta Magna komuna "komenigarria baina garrantzitsua ez" dela uste du. EFE.Madril**

Ikerketa Soziologikorako Zentroak (CIS) astelehen honetan Europar Batasunari buruzko iritzi publikoaren inguruan kaleratu duen barometro baten arabera, inkesta egin duten erdiak baino gehiagok (%56,2) onartzen du ez duela ez ezagutzen eta ezta jarraitu ere egin Konbentzioak Batasuneko Konstituzio bat burutzeko egindako lanak, %7,8k ezagutzen ditu eta jarraitu ditu eta %34,7ak lan hauek ezagutu bai baina ez ditu jarraitu.

Inkesta hau maiatzak 7 eta 12 artean egin zen (europar hauteskundeak egin baino hilabete lehenago) eta, emaitzen arabera, espainiarren gehiengoak (%65,7) testu hau onartu baino lehen Espainian erreferendum bat egin beharko litzatekeela uste du eta %14,8ak, berriz, Konstituzio proiektua Gortetan onartzea nahikoa litzatekeela uste du.

Gainera, %42,7ak ez du inongo eragozpenik ikusten Europar Batasuneko Konstituziora egokitzeke Espainiako Konstituzioaren erreforma egin beharko balitz eta %28,1ak uste du "ez litzatekeela EBko baldintzengatik bakarrik aldatu behar".

Dena den, %27,6ak bakarrik uste du Europako Karta Magna ezinbestekoa dela, %36,3ak "komenigarria baina garrantzitsua ez" dela uste du eta %10,3ak beharrezkoa ez dela uste du.

Era berean, gehiengoak (%55,8) erabaki garrantzitsuak hartzerako garaian azken hitza beti Batasuneko estatuetako gobernuak izan behar dutela uste du eta %24,7ak bakarrik nahi du EBk erabakiak hartzen dituen Gobernu bat izatea.

EB zabaltzeari dagokionez, espainiarren %63,3 alde dago eta %9,4 aurka.

Gehiengoak dira, halaber, uste dutenak herrialde berriak sartzeak ondorio positiboak ekarriko dituela Espainiarentzat (%43,1) eta Europarentzat (%64) ondorio negatiboak ekarriko dituztela uste dutenek (%30,2 eta %10,2 hurrenez hurren) ez bezala.

Onura gehien zein ekonomia sektorek hartuko dituen galdetean, %48,4ak turismoa dio, ondoren merkataritza (45,4) eta industria (32,9); nekazaritza da kaltetuen azaltzen dena %39,3ren ustetan.

Batasuneko hamar estatu berrien artean Polonia da espainiarrek hoberen gogoratzen duten herrialdea inkesta egin dutenen %33,4aren arabera eta beste aldean Eslovenia dago %14,1arekin.

CIS erakundeak jendeak Europaren zabalkundeak Espainiarentzat eta EBrentzat izango dituen eraginaren inguruan duen jakintza mailari buruz ere galdetu zuen.

Espainiar portzentaje handi batek (%80,5) "gutxi edo ezer" ez dakiela esan zuen eta erdiak baino gehiagok (53,5) agintaritza nazional eta komunitarioek prozesu honek izango dituen ondorioak "nahikoa" azaldu ez dituztela uste du.

Bestalde, Jose Maria Aznarrek EBean egin zuen Espainiaren interesen defentsari dagokionez, %32,2ak ongi defendatu zituela esan zuen eta %16,2ak gaizki egin zuela. Egungo presidentek, Jose Luis Rodríguez Zapaterok, Espainiaren interesak nola defendituko dituen galdetean, berriz, %42,5ak ongi egingo duela uste du eta %3,8ak gaizki egingo duela.

Hiritarren %83,1a ados edo oso ados dago produktu espainiarrak Batasuneko beste produktuetatik babestu beharrekin eta inkesta egin dutenen gehiengoak (42,7) espainiar bat hobeto prestatuta dagoen europar bat baino lehenago kontratatuko luke lanpostu bererako.

Azkenik, inkesta egin duten espainiarren ia %60 "batez ere espainiar" sentitzen dira, %6,9 "batez ere europar" sentitzen da eta %27 "aldi berean espainiar eta europar".

Herrialde edo munduko bloke jakinenganako sentimenduen inguruan galdetzerakoan %84ak EBren aldeko edo oso aldeko dela onartzen du eta %74,3ak Iberoamerikaren aldeko edo nahiko aldeko dela baina %58,7ak "Ameriketako Estatu Batuen kontra edo oso kontra" dagoela onartzen du eta %53,8ak "herrialde arabiarren kontra edo oso kontra" dagoela.



## ESPAINIA ETA EUROPAR BATASUNA

| ALDE ONAK | ALDE EZ HAIN ONAK |
|-----------|-------------------|
|           |                   |

### 6. Irakurri dokumentu hau, atera ideia nagusienak eta egin mapa kontzeptual bat.

(EE) [1257/1999](#) zbkia. Araudia aldatzen duen Kontseiluak egindako Araudi Proposamena, Nekazaritza Bideratu eta Bermatzeko Funtsak (NBBEF) nekazaritzaren garapenari eman beharreko laguntzari buruz eta, honenbestez, (EE) [2826/2000](#) [KOM (2003) 23 bukaera – ez zen Aldizkari Ofizialean publikatu] Araudia indargabetzen du.

Komunikazio hau Agenda 2000an zehazten denari jarraiki Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) tarteko berrikusketaren barne egiten da eta, gainera, 2002ko urrian Bruselako Europako Kontseiluak hartutako ondorioetan oinarritzen da. Ondorio hauetan etorkizuneko nekazaritzarako gastuen mugak finkatzen ziren. Nekazal garapeneko gaian erreforma honek laguntzak hobeto banatu eta nekazal garapena indartu nahi ditu, horretarako, NPBen lehenengo oinarritik bigarren arteko finantza transferentzietan oinarrituko da. Era berean, Batzordeak laguntza neurri berriak hartzea proposatzen du, honela, erkidegoaren laguntzaren aplikazio eremua zabaltzeko beti ere oraingo programaren (2000-2006) erdiko urratseko oinarri den araudia aldatu gabe. Neurri berri hauek nekazariantzat dira batez ere. Batasuneko estatuei eta lurraldeei dagokie euren nekazaritza programetan sartzen dituzten ala ez erabakitzea.

Hona neurri berri hauek dakartena:

- ∞ *“Elikagaien kalitatea” izeneko kapituluaren sortzea:* Nekazariak nekazal produktuen eta ekoizpen prozesuaren kalitatea hobetzeko erkidego nahiz nazio mailako sistemetan sar daitezten sustatzeko laguntzak. Laguntza hau urtero emango da gehienez ere 5 urtetan eta gehienez ere urtean 1.500 euro ustiapen bakoitzeko. Halaber, ekoizle taldeei laguntzak emango zaizkie kontsumitzaileei kalitatearen berme sistema aplikatzen zaien produktuei buruz informazioa emateko. Diruz lagun daitekeen proiektu honen kostuen %70 estaltzeko laguntza publikoak emango dira.
- ∞ *“Arauek betezea” izeneko kapitulu berri bat sortzea:* Batasuneko estatuak ingurumena, osasun publiko eta animalien osasuna, animalien ongizatea, kontrol fitosanitarioa eta laneko segurtasun gaietan oso zorrotzak diren arau berriei egokitu nahi zaizkien nekazariei lagundu ahal izango die. Laguntza hau modulatu egingo da, honela betebeharrak gehigarriak eta ustiapenaren kostuak kontuan edukitzeko, oroharreko zenbateko bat egongo da, beherakorra izango da eta gehienez ere 5 urtetan emango da. Ustiapen bakoitzeko urtero gehienez ere 10.000 euro emango dira. Ez da inolaz ere laguntzarik emango nekazariak araudi nazionalen dagoeneko sartutako baldintzen bat betetzen ez baldin badu. Gainera, nekazariei aholkularitza zerbitzuen kostuei aurre egiteko laguntzak emango zaizkie. Nekazariak zerbitzu hauen %80 estaltzeko laguntza publikoak har ditzakete hauek eskatzen dituzten lehen aldian eta gehienez ere 1.500 euro jaso ahal izango dituzte.

#### Aholku prozedura (CNS/2003/0007)

2003ko ekainaren 5ean Europako Parlamentuak ebazpena atera zuen irakurketa bakarra egin eta gero [ez zen Aldizkari Ofizialean publikatu].

<http://europa.eu.int/scadplus/leg/es/lvb/l60026.htm#PROPOSITION>



7. Esan zein herrialdek osatzen duten Europar Batasuna gaur egun. Esan zeintzuk ez duten Europar Batasunean sartu nahi izan.



<http://www.xtec.es/recursos/socials/mapes/imatges/europa.gif>



8. Kokatu Iberiar Penintsulako mapa honetan erliebe unitateak.

MAPA DE RELIEVE DE ESPAÑA



<http://www.indexnet.santillana.es/rsc/archivos/Recursos/geografia/historia/relievespana.pdf>

9. Kokatu mapa honetan autonomia erkidegoak. Esan autonomia erkidego bakoitzean zein probintzi dauden.




[http://www.dormirencasasrurales.com/include/casas\\_rurales/provincia/images/mapa.jpg](http://www.dormirencasasrurales.com/include/casas_rurales/provincia/images/mapa.jpg)





<http://www.noviasalcedo.es/portal/imagenescomunes/mapa.gif>

10. Esan grafiko honek zer adierazten duen eta zein grafiko mota den, eta egin iruzkin labur bat.



[http://www.conlared.com/soc\\_informacion/orsi/enero\\_2002/graficos/grafico\\_74\\_dic.gif](http://www.conlared.com/soc_informacion/orsi/enero_2002/graficos/grafico_74_dic.gif)






11. Grafiko hauek Euskal Autonomi Erkidegoko datu ezberdinak adierazten dituzte. Begiratu grafikoak arretaz eta egin iruzkin bat.

<http://www.ingurumena.net/Castellano/Datos/Indicadores/calidadaire.htm>


### AIREAREN KALITATEA

EGUN-KOP. EREMUKA, AIREAREN KALITATEAREN ARABERA. 2001 - 2002



<http://www.ingurumena.net/Castellano/Datos/Indicadores/calidadaguas.htm>

### URAREN KALITATEA: IBAIAK






### URAREN KALITATEA: ESTUARIOAK




### URAREN KALITATEA: KOSTALDEA



<http://www.ingurumena.net/Castellano/Datos/Indicadores/gasesefinvernadero.htm>




## BEROTEGI EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASEN ISURPENAK



12. Begiratu arretaz ondorengo grafikoak. Kokatu datuak taulan. Egin ikusten dituzun datuen iruzkin bat.

*Espainiako lehen mailako energiaren kontsumoaren bilakaera iturrika*

1973




[http://www.appa.es/dch/ener\\_espana.htm](http://www.appa.es/dch/ener_espana.htm)

Iturria: Dirección General de Política Energética y Minas




1999



Iturria: Dirección General de Política Energética y Minas

2030



Iturria: Dirección General de Política Energética y Minas

ESPAINIAKO LEHEN MAILAKO ENERGIAREN KONTSUMOAREN BILAKAERA  
ITURRIKA (1973-2030)


|                         | 1973 | 1999 | 2030 |
|-------------------------|------|------|------|
| Petrolioia              |      |      |      |
| Ikatza                  |      |      |      |
| Energia berriztagarriak |      |      |      |
| Nuklearra               |      |      |      |
| Gas naturala            |      |      |      |



13. Begiratu arretaz grafiko hauek eta egin hauen inguruko iruzkin bat.

[http://www.indexnet.santillana.es/rcs/\\_archivos/Recursos/geografiahistoria/g11.pdf](http://www.indexnet.santillana.es/rcs/_archivos/Recursos/geografiahistoria/g11.pdf)

### Biztanleria aktiboa Espainian





14. **Bikoteka irakurri ondorengo elkarrizketa. Definitu globalizazio terminoak zer esan nahi duen. Bete taula eta lortutako datuekin eta irakurri duzuenarekin antolatu eztabaida bat klasean.**



"Globalizazioa teknologia berrietan eta liberalizazio ekonomiko eta politikoan oinarritzen da"

Luis de Sebastian, ESADEko Ekonomia katedraduna

<http://revista.consumer.es/web/es/20000601/entrevista/>

Merkataritzaren eta orokorrean ekonomiaren globalizazio edo mundu mailako bihurtzearen inguruko eztabaidak (klase apalen alde eta herrialde pobreen askapenaren mesederako ote da, ala aitzitik, areagotu baino ez ditu egiten dauden desberdintasun handiak?) gero eta leku gehiago hartzen du hedabideetan eta gaiaren konplexutasuna dela eta, herritar bat baino gehiago noraezean gera liteke.



Eztabaida sozial honetara hurbildu da CONSUMER eta elkarrizketa egin dio Luis de Sebastián, Bartzelonako Ramón Llull Unibertsitateko ESADEko Ekonomia katedradun eta, aurrez, Ignacio Ellacuría zenaren garaian, El Salvadorreko Universidad Centroamericanako errektore orde izanari. Banco Interamericano de Desarrollo erakundeko funtzionario ere izana da gainera. Luis de Sebastianen ustez, merkatuak bere funtzioa bete dezake "ingurune zibilizatzailerik, etiko eta legezko batean, gizartearentzat baliagarri izateko". Hainbat liburu ere badu argitaraturik: besteak beste, azkena "De la esclavitud a los derechos humanos" (Ariel), "Mundo Rico, Mundo Pobre" (Salterrae) eta "El rey desnudo, cuatro verdades sobre el mercado" (Trotta).



### **Zer da benetan globalizazioa?**

Ordenagailu bidez zabaltzen diren birusen adibidea jarriko dugu. Filipinetan asmatu zen programa informatiko suntsitzaile batek (I'love you) ordu gutxiren buruan milaka milioi dolarretako galerak eragin zizkien mundu guztiko enpresa eta erakunde boteretsuei, USAko Pentagonoa barne. Lehen ez zen horrelakorik gertatzen. Gaur egun mundu guztian zehar konektaturiko sare orokor bat dago eta guztiok elkarri konektaturik gaude gure bizitzako eremu askotan, ekonomikoa barne dela. Beste adibide bat: 1997an Tailandiako monetaren (bar-aren) debaluazioa gertatu zen eta horren ondorioz ekonomia krisia sortu zen Asiako herrialdeetan; handik Latinoamerikara pasa zen eta azkenik Europara eta mendebaldeko gainerako herrialdeetara. Leku jakin bateko krisi ekonomikoa mundu mailako bihurtu zen egun gutxiren buruan. Eurokopako futbol partidetak iragarkiak mundu guztian ezagutzen diren produktuekin herrialderik gehienetan dauden konpainien iragarkiak izatea ere mundualizazioa da. Labur esanda, globalizazioa nazioartekotze fenomeno bat da, hiru hanka dituena: hanka teknologikoa (adibidez, Internet), ekonomikoa (liberalizazioei esker, dirua mundu guztian zehar mugi daiteke) eta, azkenik, politikoa: herrialdeek desagerrarazi egin dituzte ia babes guztiak, muga-zergak eta globalizazio horren alde dauden gobernuak aukeratzen dira. Lehen ez zen hori gertatzen, teknologia hori ez zegoelako eta gobernuak beren ekonomiengan kontrol handiagoa ezartzen zutelako.

### **Globalizazioaren aurkako protesta mugimenduak (Seattle, Washington, Davos...) zergatik sortu dira hain eremu anitzetatik, hau da, ekologista, sindikatu, Hirugarren Munduko herrialdeekiko solidario, antikapitalista eta abarretatik?**

Gizartea ez dago konforme eta erakunde askok Internetek eskaintzen dituen aukerak erabili dituzte beren desadostasuna agertzeko. Sareko hainbat web site-etan kontsignak aldarrikatu eta hainbat herrialdetatik, talde bakoitzaren protestak antolatu eta hainbat gauza partekatu dira. Egia da, bai, agerpen horietan mila modutako interesak daudela ordezkaturik. Seattle-en ipar ameriketako sindikatuek egin zuten protesta, beren merkatuarentzat babes handiagoa nahi zutelako eta beste hainbat taldek, berriz, hain zuzen merkatu horren babes txikiagoa eskatzen zutelako, herrialde pobreek beren produktuak hobeto saldu ahal izan zituzten. Edozein modutan ere, mobilizazio horien alderdirik garrantzitsuenak da herritarrak argi uzten ari direla gobernuari eskuetatik ihes egin diela ekonomiaren kontrolak.

Gauza jakin batengatik protesta egitera joan gaitzke Udaletxera, estatuko gobernura, erkidegokora... baina beste gauza garrantzitsu askoren erantzukizuna multinazional handi batean, Bruselan, New Yorkeko Burtsan edo Tokiokoan izango da. Orduan, non eta noren aurrean kexa daiteke jendea? Badira zenbait herrialde eta erakunde oso boteretsu (Nazioarteko Moneta Fondoa, Merkataritzaren Mundu Erakundea...) saltsa hori mugitzen dutenak eta jendeak horien aurrean egiten du protesta Seattle, Washington, Davos edo Pragakoak bezalako bilera garrantzitsuetan. Berdin dio interesak desberdinak izan arren; jendea konturatzen da bere bizitza iristen ez den altuera batzuetatik zuzendurik dagoela eta horregatik irteten du kalera protesta egitera. Kaleko jendearen mugimendu demokratikoa da, besterik gabe erakunde mota horiei kontuak eskatzeko (zer gertatzen da nire lanarekin, ingurugiroarekin, herrialde pobreekin... etorkizunarekin?).

### **Zertan eragin diezaioke globalizazioak herritar xumeari?**

Globalizazioa ez da antikristoa eta izan du gauza bat oso ona ere: produktuak merkeen dauden lekutik inportatzeko aukera ematen digu. Azken urteotan asko jaitsi da autoen prezioa, eta gainera, kalitate hobekoak dira. Uste dut herrialde aberatsetako biztanleoi mesede egin digula globalizazioak. Baina guztiek ez dute onura bera jaso, are gutxiago herrialde pobreek, eta horixe da arazoa.

### **Itzalean diharduten gobernu paraleloak al dira multinazionalak?**

Ez dut uste multinazionalak estatuen eta administrazio publikoen funtzio politikoak bereganatu nahi izango dituztenik. Ez dute gaitasunik eta ez dut uste hori nahi dutenik ere.





Botere publikoekin harreman onak izatea eta Administrazioa euren alde izatea nahi dute, diru laguntzak jaso, lursailak merke eskuratu eta ingurugiro gaiekin inork ez ditzala gogaitu. Baina ez dut uste multinazionalen Administrazioen funtzioak bereganatzerik - adibidez, Gizarte Segurantzaren gestioaz arduratzerik - nahi izango dutenik. Enpresa handiei primeran datorkie sortzen dituzten kostuez, adibidez langabezia, kargu egingo den estatu bat izatea. Estatuak diru publikoa komunikazio bide hobeak (autobideak, aireportuak, telekomunikazioak...) sortzen inbertitzea ere komeni zaie, ekonomistek "kanpokotasunak" deitzen dutena sor dezatela, beren produktibitatea eta irabaziak gehitzen lagunduko dietena.

### **Globalizazioan zer funtzio betetzen dute Nazioarteko Moneta Fondoak, Merkataritzako Mundu Erakundeak eta Munduko Bankuak?**

Helburu desberdinak dituzten erakundeak dira. Munduko Bankuak garapen bidean diren herrialdeak ditu helburu; adibidez, Espainiari ez dio mailegurik ematen, eta Espainiak urtero egiten dio ekarpena. Nazioarteko Moneta Fondoak herrialde guztientzat dago, garapen kontuetan espezializatuz doan arren eta ez dakit hori den bere egitekoa. Merkataritzako Mundu Erakundeak ere guztiei zerbitzen die, baina batez ere herrialde aberatsei, horiek baitira merkataritzan gehien aritzen direnak. Lehenik eta behin jakin behar dugu erakunde horiek ez direla finantzatzen dituzten herrialdeengandik independenteak. Adibidez, Nazioarteko Moneta Fondoan (NMF) Estatu Batuek, Japoniak eta Europako Batasunak agintzen dute. Batzuetan, erakunde horiek independenteak direla uste izaten da eta herrialde aberatsen aurka egin dezaketela, baina ez da hala izaten. NMFan eta Munduko Bankuan gehien agintzen duen gizona USAko Altxoraren Idazkaria (Ekonomia Ministroa) da, argi eta garbi. Hitz bitan, erakunde horiek ezartzen dituzten politikak, diruz babesten dituzten herrialdeen aldekoak izaten dira. Beste herrialde batzuen garapenean lagundu dutela ere aitortu beharra dago, hala ere. NMFak eta Munduko Bankuak Espainiaren garapen ekonomikoan lagundu zuten 1959an, atzerapenetik eta pobreziatik irteten ari ginenean. Laguntzen hartzaile izan dira Turkia, Israel, Singapur, Korea eta abar ere, gaur egungo garapen ekonomikorako behar zuten bultzada eman baitzitzaion.

### **Herrialde pobre eta aberatsen arteko tartea ixten ala, alderantziz, handitzen ari da zure ustez?**

Gero eta gehiago handituz doa. Aberastasunaren banaketa oso desorekatua ekartzen du globalizazioak. Hainbat jende oso aberats egiten ari da; munduan 200 milioi pezetatik gorako aberastasuna duen 5 milioi pertsona daudela kalkulatu da. Handiki multzo izugarri horrekin batera, pobrezian bizi den milaka milioi lagun dago. Ebakia irekiz doa eta ez herrialde aberats eta herrialde pobreen artean bakarrik, baita herrialde beraren barruan ere. Caritas erakundearen arabera, Espainian zortzi milioi pertsona (biztanleriaren bostena) bizi da pobrezian. Horrenbestez, erabakirik hartzen ez bada, kopuruak gora egingo du. Ezin dugu merkatuko zoriaren menpe, globalizazioaren esku utzi (jende askori emango dizkio aukerak eta aberats asko sortuko du), jende askok oso gaizki pasako baitu. Merkatuak ez du pobre eta baztertuengan pentsatuko, beste helburu batzuk ditu eta. Bestalde, herrialde behartsuen artean ere kategoriak daude. Globalizazioak merkataritzako eta finantza inbertsioetako zirkuituetan daudenei egin die mesede. Txina, duela 25 urte, herrialde tristea eta oso behartsua zen eta arazo larriak zituen (okerreko nutrizioa, haurren hilkortasuna, erregimen politiko oso gogorra), baina azken urteotan jauzi handia eman du. Atzerriko kapitalak inbertsio izugarriak egin ditu han eta herrialde nabarmena loratu da globalizazioari esker. Indian ere antzeko zerbait gertatu da, baina Pakistan edo Bangladesh inbertsio isuri horretatik kanpo geratu dira eta ezin izan dira garatu. Afrikara begiratzen badugu, hango jendea gero eta itoago dago miseria, bizitza ekonomiko, sozial eta politikoaren degradazioan. Han ez du inork inbertitzen eta Mendebaldeko gizarteari armen negozioarako eta zor dizkigutenak ordaintzeko baino ez dio balio Afrikak. Globalizazioaren onuretatik kanpo geratu dira herrialde horiek.





### **Egoera honetan, basamortuko hondar alea ote da Bidezko Merkataritza?**

Nazioarteko merkataritzaren zati txiki bat da, baina balio handia du. Bidezko Merkataritzaren defendatzaile sutsua naiz; keinu eta salaketa egokia da, Ipar eta Hegoaren arteko merkataritza harremanen bidegabekeriak jendea ohartarazteko. Ez dut uste arazoa konponduko duenik, baina askoz okerrago da etsipena eta ezer ez egitea. Mugimendu horiek, askorik konpontzen ez duten arren, baliteke kooperatiba edo herri jakin bateko bizitza hobetzea. Horrekin ez dira Hirugarren Munduko arazoak konponduko, baina balio handia dute gizartea kontzientziatzeko. Era horretako ekimen asko babesten dut, besteak beste kanpo zorra barkatzea, inmigranteak hartzea... izan ere, pertsona humanista, aurrerakoi eta kristauek parte hartu behar luke hainbat gauzatan.



## **GLOBALIZAZIOA**



| ALDE ONAK | ALDE TXARRAK |
|-----------|--------------|
|           |              |



15. Esan zein izan den Espainiako biztanleriaren bilakaera 1900. urtetik 1991. urtera eta zein izan daitekeen 2050. urte arteko bilakaera posiblea. Iruzkina egiterako orduan aztertu jaiotzak, heriotzak, bizi itxaropena, gizonezko eta emakumezkoen arteko proportzioa, arrazoi eta ondorioak...

1990eko Espainiako biztanleriaren piramidea





16. Gaur egungo mapa bat erabili eta identifikatu Bilbok XIV eta XIX. mendeen artean izan duen etengabeko hazkundera. Erabili kolore ezberdinak batetik, Bilbo hasiera adierazteko eta, bestetik, Bilboko zabalkundera adierazteko.

➤ Identifikatu ondorengo eraikinak:







- XIX. mende amaieran eraikitako eraikin hauek identifikatu dituzunean koka itzazu Bilboko mapan. Margotu Bilboko kalerik garrantzitsuenak: Kale Nagusia (Gran Via).

Iturria: "Las ciudades a través de la historia: Bilbao, un caso particular" gaztelania aholkularitza, Abandoko Berritzegunea eta Getxo eta Leioako Berritzeguneen aholkularitzak.

- Egungo Bilboko mapa ikusi eta begiratu arretaz zein izan diren XX. mendean zehar eraikitzen joan diren auzoak.

#### 17. Azaldu:

- Irakurri honako dokumentu hau eta ideia nagusienak hartuta egin mapa kontzeptual bat.
- Bilatu zein autonomia erkidegok duen probintzia bakarra eta zeinek dituzten bi edo gehiago. Sartu informazio hau mapa kontzeptualean.

#### Gobernu lokala

1978ko Konstituzioak bi autonomia erkidego mota sortu zituen eta mota bakoitzak botere ezberdinak zituen. Katalunia, Euskal Herria eta Galizia 'nazionalitate historiko' gisa definitu zituzten eta autonomia errazago lortu zuten. Prozesu hau luzeagoa eta zailagoa izan zen beste lurralde batzuentzat. Autonomia erkidegoek autogobernu botere nabarmena lortu dute eta oraindik ere gobernu zentralarekin negoziazioek diraute kompetentzia gehiago lortzeko.

Hamazazpi autonomia erkidegoetako bakoitzak ganbera bakarrek legebiltzarra aukeratzen du eta honek lehendakari bat hautatzen du legebiltzarra osatzen duten kideen artean. Zazpi dira probintzia bakar batez osatzen diren autonomia erkidegoak, gainerako hamarrek bi edo gehiago dituzte. Probintzia bakoitzak, 50 guztira, Barne Ministroak izendatutako gobernadore zibil bat du. 8.000 udalerrietako bakoitza gobernatzeko herriak hautatutako kontzeju bat dago eta kontzeju honek kideetako bat aukeratzen du alkate gisa.

[http://es.encarta.msn.com/encyclopedia\\_761575057\\_5/España.html](http://es.encarta.msn.com/encyclopedia_761575057_5/España.html)





18. Kokatu mapa honetan autonomia erkidegoak.




[http://www.dormirencasasrurales.com/include/casas\\_rurales/provincia/images/mapa.jpg](http://www.dormirencasasrurales.com/include/casas_rurales/provincia/images/mapa.jpg)



## EDUKI BLOKEEN EZAGUTZA ADIERAZLEEI DAGOZKIEN ARIKETEN ADIBIDEEN ERANTZUNAK

1. Begiratu arretaz bi mapa hauek. Biek ere Lurra adierazten dute baina batek Mercator proiektzioaren arabera eta besteak Peters proiektzioaren arabera. Esan proiektzio bakoitza zein mapari dagokion. Aurkitu proiektzio bakoitzari buruzko informazioa eta ondorengo koadroan idatzi bien artean dauden ezberdintasunak eta azaltzen duten fidagarritasun maila.


1. mapa



<http://mercator.upc.es/Cataleg/MERCATOR/TOT.HTM>



## 2. mapa



<http://club.telepolis.com/geografo/general/peters.htm>

Jarduera honetan ikasleek iturri ezberdinetan bila dezakete informazioa (atlasak, testu liburuak, interneta...), baita ondoren azaltzen diren dokumentuetatik ere.

### **Mercator-en Proiektzioa**

1596. urtean Mercator izeneko Flandriako matematikari eta kartografoak munduko mapa bat kaleratu zuen. Garai hartan nabigatzaileek oso gustuko zuten mapa hau eta gaur egun arte erabili da. Mercatorrek lurreko esfera mapa batean adierazteko erabiltzen duen modua nahiko ona da, kontinenteen forma erreala nahiko zehatz mantentzen baitu. Dena den, Mercatorrek ez du tamaina erreala errespetatzen. Gainera, Europak mapan duen kokapenaren alde egiteko ekuatorea inongo zalantzarik gabe mugitzen du hegoaldera.

Akal Editoriala.

### **Peters-en Proiektzioa**

1965. urtean Peters izeneko geografo alemaniar batek munduko mapa berri bat egin zuen: kontinenteen tamainen arteko baliokidetasuna errespetatzen zuen planisferio bat. Dena den, mapa honek formak eta distantziak aldatzen ditu. Ekuatoreari dagokionez, munduaren erdian egoten jarraitzen du, ondorioz, Europak nagusitasuna galtzen du. Hirugarren Munduko herrialdeek oso gustuko dute Petersen mapa hau.

Akal Editoriala.





| MERCATOR PROIEKZIOA | PETERS PROIEKZIOA |
|---------------------|-------------------|
|                     |                   |

**Erantzuna:**

| MERCATOR PROIEKZIOA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | PETERS PROIEKZIOA                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>1596 Urtea</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Kontinenteen forma erreala nahiko zehatz mantentzen du.</li><li>- Ez du kontinenteen tamaina erreala errespetatzen.</li><li>- Europak mapan duen kokalekuaren alde egitearren ekuatorea besterik gabe hegoaldera mugitzen du.</li><li>- Herrialde garatuen gustukoa.</li></ul> | <p>1965 Urtea</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Formak eta distantziak aldatzen ditu.</li><li>- Kontinenteen tamainen arteko baliokidetasuna errespetatzen du.</li><li>- Ekuatorea munduaren erdian dago, beraz, Europak nagusitasuna galtzen du.</li><li>- Garapen bidean dauden herrialdeen gustukoa.</li></ul> |

**2. Begiratu arretaz argazki hau eta egin iruzkin bat.**



<http://www.panama1.com/gobierno.php>



**Erantzuna:**

Honako hau Panamaren argazki bat da. (Informazio honek ez du garrantzirik iruzkinean)  
Hiri baten argazkia da.

Biztanleria dentsitate handia du (etxe-orratz ugari ikusten baita). Ia ez dago gunerik berderik (zuhaitz bakan batzuk kaleetan), honela, paisaia naturala desagertu egin da. Gizakia izan da paisaia aldatu duena.

Kontraste bat dago eraikinen artean, altura txikiko eraikinak eta etxe-orratzak, guztiak batera azaltzen baitira.

Hiriaren zati honetan ez dago industriarik eta hau puntu garrantzitsua da ingurumenari dagokionez.

Zerbitzuen sektorea hiriko gunerik nagusienean biltzen da batez ere (bankuak, dendak, bulegoak eta lantokiak...).


Azpiegituri dagokionez, ongi komunikatuta dagoen hiri bat da, izan ere, kanal bat dauka (Panamako kanala) eta errepideek bide bat baino gehiago dute, honela, egoten den trafikoa handia bideratzeko.

Kanalen, ibaien edo itsasoaren ondoan kokatuta egotea oso faktore garrantzitsua da hiri bat sortu eta hazteko orduan, merkantzien sarrera eta irteera, merkataritzaren garapena eta garapen industrialaren errazten baitira.

Jarduera hau hiri bateko argazkia eta izena emanda ere egin daiteke. Ikasleek hiri horretarako informazioa bilatu behar dute (kokapena, klima, landaretza, biztanle kopurua, industria eta zerbitzuak, azpiegiturak, ingurumena, turismoa eta aisialdia...).



3. Begiratu arretaz “Munduko analfabetismoa 2000. urtean” izeneko mapa hau. Saiatu honen interpretazio bat ematen eta azaldu arrazoi eta ondorio batzuk.



[http://www.uis.unesco.org/en/stats/statistics/ed/lit\\_esp/map\\_monde2000\\_ESP.jpg](http://www.uis.unesco.org/en/stats/statistics/ed/lit_esp/map_monde2000_ESP.jpg)

#### Erantzuna:

Internetako helbidean mapa handiago ikusi eta datuak hobeto ezberdindu daitezke.

- ✓ Analfabetismoak ez du ia eraginik herrialde garatueta (%20 baino gutxiago)
- ✓ Bigarren mailan (%10-%30) garapenaren bidean aurrerapauso gehien eman dituzten Hirugarren Munduko herrialdeak daude: Latinoamerika eta Asia ekialdekoak ia gehienak.
- ✓ Egoera larrienak (%30-%50) Afrikako eta Asia mendebaldeko herrialdeek bizi dituzte: Marokotik hasi eta India eta Bangladesh arte. Herrialde hauek biztanleria hazkunde altuena eta 15 urte baino gutxiagoko pertsona gehien dituzte eta honek guztiak eskolatzea zailtzen du.
- ✓ Bereziki larriak diren kasuak tasa %50 baino altuagoa duten herrialdeak dira. Maroko, Mauritania, Niger, Sudan, Etiopia, Somalia, Yemen, Afganistan... Gainera, lehortek, desertifikazioa, gatazkak eta gerrak bizitzen dituzte eta honek desplazatuak kopurua handitzen du, ondorioz, eskolatzeko eta alfabetatzeko ezinezkoa egiten da.

*Era berean, mutil eta nesken arteko eskolatzeko maila ezberdintasuna zehaztu beharko litzateke.*




4. Begiratu arretaz munduko bola eta esan bertako lerroek zer adierazten duten eta zertarako diren. Bilatu honi buruzko informazioa.



<http://www.inai.org.ar/nuevo/mundo.jpg>

**Erantzuna:**



<http://eyt.cubasolar.cu/Energia/Energia06/HTML/articulo04.htm>

Marra irudikariak dira.

Iparraldetik hegoaldera laranja aleen moduan doazen marrak **meridianoak** dira.

Ekialdetik mendebaldera doazen marrak **paraleloak** dira.

**Merdianoak:**

Meridianoek luzera adierazten dute (ekialdea-mendebaldea). Datu hauek Greenwichen 0° meridianoarekin hasi eta 180° arte daude.

**Paraleloak:**

Paraleloek latitudea adierazten dute (iparra-hegoa).

Ekuatoreak bi zatitan banatzen du Lurra: hemisferioak. Paraleloak ekuatorearekiko paraleloan doazen zirkunferentziak dira.

Paraleloak ekuatoreko 0° paraleloarekin hasi eta poloetako 90 graduekin amaitzen diren datuekin antolatzen dira.



**5. Jarraian azaltzen diren dokumentuak Espainiari eta Europar Batasunari buruzkoak dira. Irakurri dokumentuak eta jarri taulan alderdi onak eta hain onak ez direnak.**

**1. dokumentua**

**Ekonomia/Nekazaritza.- Espinosak astelehenean adostuko du Espainiak azukrearen erreformari buruzko proposamenaren aurrean izango duen jarrera.**

MADRIL, 1 (EUROPA PRESS)

2004ko uztailaren 1a, 18:57

Elena Espinosa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministroa, hurrengo astelehenean bilduko da Franz Fischler europar komisarioak azukrearen Merkatu Antolakunde Bateratuaren (MAB) erreformaren oinarri moduan idatzitako dokumentua dela eta arlo bereko autonomia erkidegoetako sailburuekin. Hori da arloko iturriek Europa Pressi gaur jakinarazi diotena.

Ministroaren helburua Espainiaren jarrera adostea da, honela dokumentua blokeatu eta Komisarioen Elkargora azukrearen erreforma formal gisa aurkeztu ez dezaten, izan ere, gaur egungo egoeran erreforma aplikatzeak Espainiako laborantza eta industria elkartuak desagertzea ekarriko luke.

Honela, Espinosa Andaluziako, Gaztela Leongo, Gaztela-Mantxako, Errioxako, Euskal Herriko eta Extremadurako nekazaritza sailburuekin bilduko da, autonomia hauek baitute erremolatxa eta kanabera ustiaketa gehien.

Bestalde, nekazaritza titularrak gutun bat idatzi dio Fischlerri erreforma dela eta sektoreak bizi duen kezka jakinarazteko eta, era berean, Europako Batzordeko lehendakariordea eta Garraio eta Energia kontseilariarekin, Loyola de Palaciorekin nahiz Ekonomi eta Moneta arazoetarako Kontseilariarekin, Joaquín Almuniaekin jarri da harremanetan.

Sektorearen arabera, dokumentu proposamen honen erabakiek Espainian erremolatxaren laborantzan oinarritzen diren 18.000 ustiapen desagertzea ekarriko lukete eta ustiapen hauetatik 300.000 familia bizi dira, batez ere Andaluzia, Gaztela Leonen, Espainia iparraldean eta Gaztela-Mantxan.

<http://labolsa.com/noticias/20040701185724/>



## 2. dokumentua

[http://www.canariasahora.com/portada/editar\\_noticia.asp?idnoticia=44491&idtemageneral=2](http://www.canariasahora.com/portada/editar_noticia.asp?idnoticia=44491&idtemageneral=2)

### Asteartea, 2004ko ekainaren 29a **%36AK DIO KARTA MAGNA KOMENIGARRIA DELA BAINA EZ GARRANTZITSUA**

**Biztanleriaren %65aren arabera Europako Konstituzioak erreferendum bat pasa beharko luke Espainiarren %65,7ak Europako Konstituzioari buruzko akordioa onartu baino lehen erreferendum bat egin beharko litzatekeela uste du eta %36,3ak Karta Magna komuna "komenigarria baina garrantzitsua ez" dela uste du. EFE.Madril**

Ikerketa Soziologikorako Zentroak (CIS) astelehen honetan Europar Batasunari buruzko iritzi publikoaren inguruan kaleratu duen barometro baten arabera, inkesta egin duten erdiak baino gehiagok (%56,2) onartzen du ez duela ez ezagutzen eta ezta jarraitu ere egin Konbentzioak Batasuneko Konstituzio bat burutzeko egindako lanak, %7,8k ezagutzen ditu eta jarraitu ditu eta %34,7ak lan hauek ezagutu bai baina ez ditu jarraitu.

Inkesta hau maiatzak 7 eta 12 artean egin zen (europar hauteskundeak egin baino hilabete lehenago) eta, emaitzen arabera, espainiarren gehiengoak (%65,7) testu hau onartu baino lehen Espainian erreferendum bat egin beharko litzatekeela uste du eta %14,8ak, berriz, Konstituzio proiektua Gorteetan onartzea nahikoa litzatekeela uste du.

Gainera, %42,7ak ez du inongo eragozpenik ikusten Europar Batasuneko Konstituziora egokitzeko Espainiako Konstituzioaren erreforma egin beharko balitz eta %28,1ak uste du "ez litzatekeela EBko baldintzengatik bakarrik aldatu behar".

Dena den, %27,6ak bakarrik uste du Europako Karta Magna ezinbestekoa dela, %36,3ak "komenigarria baina garrantzitsua ez" dela uste du eta %10,3ak beharrezkoa ez dela uste du.

Era berean, gehiengoak (%55,8) erabaki garrantzitsuak hartzerako garaian azken hitza beti Batasuneko estatuetako gobernuak izan behar dutela uste du eta %24,7ak bakarrik nahi du EBk erabakiak hartzen dituen Gobernu bat izatea.

EB zabaltzeari dagokionez, espainiarren %63,3 alde dago eta %9,4 aurka.

Gehiengoak dira, halaber, uste dutenak herrialde berriak sartzeak ondorio positiboak ekarriko dituela Espainiarentzat (%43,1) eta Europarentzat (%64) ondorio negatiboak ekarriko dituztela uste dutenek (%30,2 eta %10,2 hurrenez hurren) ez bezala.

Onura gehien zein ekonomia sektorek hartuko dituen galdetzean, %48,4ak turismoa dio, ondoren merkataritza (45,4) eta industria (32,9); nekazaritza da kaltetuen azaltzen dena %39,3ren ustetan.

Batasuneko hamar estatu berrien artean Polonia da espainiarrek hoberen gogoratzen duten herrialdea inkesta egin dutenen %33,4aren arabera eta beste aldean Eslovenia dago %14,1arekin.

CIS erakundeak jendeak Europaren zabalkundeak Espainiarentzat eta EBrentzat izango dituen eraginaren inguruan duen jakintza mailari buruz ere galdetu zuen.

Espainiar portzentaje handi batek (%80,5) "gutxi edo ezer" ez dakiela esan zuen eta erdiak baino gehiagok (53,5) agintaritza nazional eta komunitarioek prozesu honek izango dituen ondorioak "nahikoa" azaldu ez dituztela uste du.

Bestalde, Jose Maria Aznarrek EBean egin zuen Espainiaren interesen defentsari dagokionez, %32,2ak ongi defendatu zituela esan zuen eta %16,2ak gaizki egin zuela. Egungo presidentek, Jose Luis Rodríguez Zapaterok, Espainiaren interesak nola defendituko dituen galdetzean, berriz, %42,5ak ongi egingo duela uste du eta %3,8ak gaizki egingo duela.

Hiritarren %83,1a ados edo oso ados dago produktu espainiarrek Batasuneko beste produktuetatik babestu beharrezkin eta inkesta egin dutenen gehiengoak (42,7) espainiar bat hobeto prestatuta dagoen europar bat baino lehenago kontratatuko luke lanpostu bererako.

Azkenik, inkesta egin duten espainiarren ia %60 "batez ere espainiar" sentitzen dira, %6,9 "batez ere europear" sentitzen da eta %27 "aldi berean espainiar eta europear".

Herrialde edo munduko bloke jakinenganako sentimenduen inguruan galdetzerakoan %84ak EBren aldeko edo oso aldeko dela onartzen du eta %74,3ak Iberoamerikaren aldeko edo nahiko aldeko dela baina %58,7ak "Ameriketako Estatu Batuen kontra edo oso kontra" dagoela onartzen du eta %53,8ak "herrialde arabiarren kontra edo oso kontra" dagoela.



### ESPAINIA ETA EUOPAR BATASUNA

| ALDE ONAK | ALDE EZ HAIN ONAK |
|-----------|-------------------|
|           |                   |

Erantzuna:

### ESPAINIA ETA EUOPAR BATASUNA

| ALDE ONAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     | ALDE EZ HAIN ONAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"><li>- Biztanleen gehiengoak (%43,1) herrialde berriak sartzeak Espainiari ondorio onak ekarriko dizkiola uste du, betez ere honako gai hauetarako:<ul style="list-style-type: none"><li>✓ Turismoa</li><li>✓ Merkataritza</li><li>✓ Industria</li></ul></li><li>- %84 Europar Batasunaren alde edo oso alde dago.</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>- Azukrearen erreforma-proposamena: laborantza eta industria elkartuak desagertzea.</li><li>- Espainiarren arabera nekazaritza da sektorerik kaltetuena (39,3%). %83,1 ados edo guztiz ados dago produktu espainiarrak Batasuneko beste herrialdeetako produktuen lehiatik babestearen beharraz.</li></ul> |

Beste aukera bat behin taula beteta klasean eztabaida bat egitea litzateke honako gai hau hartuta: "Espainia Europar Batasunera sartzearen ondorio onak eta ez hain onak". Honetarako, informazioa hainbat iturritan bilatuko dute (egunkariak, interneta, testu liburuak...).





6. Irakurri dokumentu hau, atera ideia nagusienak eta egin mapa kontzeptual bat.

(EE) [1257/1999](#) zbkia. Araudia aldatzen duen Kontseiluak egindako Araudi Proposamena, Nekazaritza Bideratu eta Bermatzeko Funtsak (NBBEF) nekazaritzaren garapenari eman beharreko laguntzari buruz eta, honenbestez, (EE) [2826/2000](#) [KOM (2003) 23 bukaera – ez zen Aldizkari Ofizialean publikatu] Araudia indargabetzen du.

Komunikazio hau Agenda 2000an zehazten denari jarraiki Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) tarteko berrikusketaren barne egiten da eta, gainera, 2002ko urrian Bruselako Europako Kontseiluak hartutako ondorioetan oinarritzen da. Ondorio hauetan etorkizuneko nekazaritzarako gastuen mugak finkatzen ziren. Nekazal garapeneko gaian erreforma honek laguntzak hobeto banatu eta nekazal garapena indartu nahi ditu, horretarako, NPBen lehenengo oinarritik bigarren arteko finantza transferentzietan oinarrituko da. Era berean, Batzordeak laguntza neurri berriak hartzea proposatzen du, honela, erkidegoaren laguntzaren aplikazio eremua zabaltzeko beti ere oraingo programaren (2000-2006) erdiko urratseko oinarri den araudia aldatu gabe. Neurri berri hauek nekazariarentzat dira batez ere. Batasuneko estatuei eta lurraldeei dagokie euren nekazaritza programetan sartzen dituzten ala ez erabakitzea.

Hona neurri berri hauek dakartena:

- ∞ *“Elikagaien kalitatea” izeneko kapitulua sortzea:* Nekazariak nekazal produktuen eta ekoizpen prozesuaren kalitatea hobetzeko erkidego nahiz nazio mailako sistemetan sar daitezen sustatzeko laguntzak. Laguntza hau urtero emango da gehienez ere 5 urtetan eta gehienez ere urtean 1.500 euro ustiapen bakoitzeko. Halaber, ekoizle taldeei laguntzak emango zaizkie kontsumitzaileei kalitatearen berme sistema aplikatzen zaien produktuei buruz informa diezaieten. Diruz lagun daitekeen proiektu honen kostuen %70 estaltzeko laguntza publikoak emango dira.
- ∞ *“Arauk betezea” izeneko kapitulu berri bat sortzea:* Batasuneko estatuek ingurumena, osasun publiko eta animalien osasuna, animalien ongizatea, kontrol fitosanitarioa eta laneko segurtasun gaietan oso zorrotzak diren arau berriei egokitu nahi zaizkien nekazariei lagundu ahal izango die. Laguntza hau modulatu egingo da, honela betebeharrak gehigarriak eta ustiapenaren kostuak kontuan edukitzeko, oroharreko zenbateko bat egongo da, beherakorra izango da eta gehienez ere 5 urtetan emango da. Ustiapen bakoitzeko urtero gehienez ere 10.000 euro emango dira. Ez da inolaz ere laguntzarik emango nekazariak araudi nazionalean dagoeneko sartutako baldintzaren bat betetzen ez baldin badu. Gainera, nekazariei aholkularitza zerbitzuen kostuei aurre egiteko laguntzak emango zaizkie. Nekazariak zerbitzu hauen %80 estaltzeko laguntza publikoak har ditzakete hauek eskatzen dituzten lehen aldian eta gehienez ere 1.500 euro jaso ahal izango dituzte.


**Aholku prozedura (CNS/2003/0007)**

2003ko ekainaren 5ean Europako Parlamentuak ebazpena atera zuen irakurketa bakarra egin eta gero [ez zen Aldizkari Ofizialean publikatu].

<http://europa.eu.int/scadplus/leg/es/lvb/l60026.htm#PROPOSITION>



**Erantzuna:**





7. Esan zein herrialdek osatzen duten Europar Batasuna gaur egun. Esan zeintzuk ez duten Europar Batasunean sartu nahi izan.



<http://www.xtec.es/recursos/socials/mapes/imatges/europa.gif>



[http://europa.eu.int/abc/maps/index\\_es.htm](http://europa.eu.int/abc/maps/index_es.htm)

**Erantzuna:**

Europar Batasunean dauden herrialdeak:

- |             |                       |
|-------------|-----------------------|
| - Alemania  | - Hungaria            |
| - Austria   | - Irlanda             |
| - Belgika   | - Italia              |
| - Txipre    | - Letonia             |
| - Danimarka | - Luxenburgo          |
| - Eslovakia | - Malta               |
| - Eslovenia | - Herbehereak         |
| - Espainia  | - Polonia             |
| - Estonia   | - Portugal            |
| - Finlandia | - Erresuma Batua      |
| - Frantzia  | - Txekiar Errepublika |
| - Grezia    | - Suedia              |




Herrialde hautagaiak (ez da beharrezkoa jartzea):

- Bulgaria
- Kroazia
- Errumania
- Turkia

Europar Batasunean sartu nahi izan ez dutenak: Norvegia, Islandia eta Suitza.

**8. Kokatu Iberiar Penintsulako mapa honetan erliebe unitateak.**

MAPA DE RELIEVE DE ESPAÑA



<http://www.indexnet.santillana.es/rce/archivos/Recursos/geografia/historia/relievespana.pdf>



Erantzuna:



[http://www.indexnet.santillana.es/rcs/\\_archivos/Recursos/geografiahistoria/q01.pdf](http://www.indexnet.santillana.es/rcs/_archivos/Recursos/geografiahistoria/q01.pdf)

9. Kokatu mapa honetan autonomia erkidegoak. Esan autonomia erkidego bakoitzean zein probintzi dauden.



[http://www.dormirencasasrurales.com/include/casas\\_rurales/provincia/images/mapa.jpg](http://www.dormirencasasrurales.com/include/casas_rurales/provincia/images/mapa.jpg)



<http://www.noviasalcedo.es/porta/imagenescomunes/mapa.gif>

**Erantzuna:**




<http://www.educared.net/congresoii/img/internas/espana.gif>





[http://www.elrecreativo.com/img/espana\\_provincias.gif](http://www.elrecreativo.com/img/espana_provincias.gif)

10. Esan grafiko honek zer adierazten duen eta zein grafiko mota den, eta egin iruzkin labur bat.



[http://www.conlared.com/soc\\_informacion/orsi/enero\\_2002/graficos/grafico\\_74\\_dic.gif](http://www.conlared.com/soc_informacion/orsi/enero_2002/graficos/grafico_74_dic.gif)





**Erantzuna:**

Barra grafiko honek interneteko erabiltzaileen datuak adierazten ditu autonomia erkidegoka. Datuak 2002ko urtarrilekoak dira.

Katalunia, Errioxa eta Euskal Herriko autonomia erkidegoak Madrilgo komunitatearen aurretik daude internetari konektatutako erabiltzaileei dagokienean, hauen datuak %26,6, %25,3 eta %25,1 baitira hurrenez hurren. Autonomia erkidego hauek maila ekonomiko eta kultural garrantzitsua dute eta honek euren biztanleen artean Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) garapen eta hedapenean eragingo du.

Madrilgo erkidegoaren atzetik Asturias dago %22,7arekin eta Balearrak %21,8ko erabiltzaile kopuruarekin.

Erabiltzaile portzentaje baxuago batekin Kanariak eta Kantabriako erkidegoak daude (19,1%).

Andaluzia, Gaztela Leon, Aragoi eta Murtziak %18 baino erabiltzaile gehiago dituzte eta Nafarroak %17,3.

Portzentajerik baxuenak Galiziak (%14,6), Extremadurak (%14) eta Gaztela-Mantxak (%12) dituzte. Erkidego hauek per capita errenta baxuagoa dute eta nekazaritzak beste erkidegoetan baino pisu handiagoa du.

Internetek herrialde baten garapen ekonomikoan eta kulturean duen lotura hestua da, informazioa eskuratu ahal izatea oso garrantzitsua baita transakzio ekonomikoetarako, merkataritza-akordioetarako, Burtsan inbertitzeko...

Herrialdeen artean Internet bidez sortu diren mundu mailako harremanak dira gaur egunean "globalizazio" izenarekin ezagutzen direnak; hau da, ekonomia ez da herrialde bateko ekonomiara mugatzen, herrialdeen arteko mugak ireki egin dira ekonomia bakarrari ateak zabalduz. Arrazoi honen ondorioz, ordea, herrialde aberats eta txiroen arteko aldea gero zeta handiagoa egiten ari da.




11. Grafiko hauek Euskal Autonomi Erkidegoko datu ezberdinak adierazten dituzte. Begiratu grafikoak arretaz eta egin iruzkin bat.

<http://www.ingurumena.net/Castellano/Datos/Indicadores/calidadaire.htm>


### AIREAREN KALITATEA

EGUN-KOP. EREMUKA, AIREAREN KALITATEAREN ARABERA. 2001 - 2002




<http://www.ingurumena.net/Castellano/Datos/Indicadores/calidadaguas.htm>

### URAREN KALITATEA: IBAIAK






### URAREN KALITATEA: ESTUARIOAK




### URAREN KALITATEA: KOSTALDEA



<http://www.ingurumena.net/Castellano/Datos/Indicadores/gasesefinvernadero.htm>



## BEROTEGI EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASEN ISURPENAK



### Erantzuna:

#### Airearen kalitatea

2001. urtean zehar airearen kalitatea txarra edo oso txarra zeneko 23 egun izan ziren, 2002. urtean, berriz, 21 izan ziren.

Azken urteetan airearen kalitatea SO<sub>2</sub> eta NO<sub>2</sub> mailari dagokionez, asko hobetu da. Ez 2001ean ezta 2002an ere ez dira legeak ezarritako mugak gainditu.

Partikulen kontzentrazioa (PM<sub>10</sub>) 2001 eta 2002. urteetan handia da gune jakin batzuetan (Santurtzi, Erandio, Barakaldo, Bilbo, Basauri, Arrasate-Mondragon) eta 2005erako Europako araudiak finkatutako helburuetara iristeko urrun gaude.

Ozonoari dagokionez, 2001ean 36 aldiz gainditu zen giza osasunaren babeserako atalasea.

#### Uren kalitatea

Ibaietako uren hobekuntza bat ikus daiteke, horrela, 2002. urtean balorazio ona jasotzen duten estazioak %55 dira. Hobekuntza hau, maila baxuagoan baldin bada ere, estuarioetako uretan nabari da. Hala ere, Nerbioi, Oria eta Debako arroetan arazoek dira.

Kostako uren kalitatea ona izan da 2002. urtean, estazio bat berak ere ez baitu kutsadura ertain edo alturik aurkitu. Dena den, 2002ko abenduan egoera hau guztiz aldatuko da, Prestige ontziaren lehen fuel kantitateak iritsiko baitira.

#### Berotegi efektua eragiten duten gasen isurpenak

1990 eta 2001. urteen artean Euskal Herrian berotegi efektuko gas nagusien zuzeneko isurpenak %20 igo dira, CO<sub>2</sub> 14,8 milioi tonatik 17,8 milioi tonatara. Hiru urte jarraituetan berotegi efektuko gasen isurpena handitu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoak 2001. urtean bere isurpenak %4 murriztu ditu 2000. urteari dagokionean. Dena den, 2002. urteari dagozkien behin behineko datuek igoera bat erakusten dute lehengo urteko isurpenekin alderatuz gero (%7,6+), honela, 1990. urteari dagokionez, guztira %28,6ko igoera lortzen da.

Espainiarekin alderatuz gero, grafikoak Euskal Autonomia Erkidegoan gasen isurpena txikiagoa dela erakusten du baina 2001. urtetik aurrera goranzko joera ikusten da.


Kiotoko gailurreko helburua Espainiak 2001. urtean gasen isurpena +%33 izatetik 2008-2013. urteen artean +%15 izatera pasa dadila da, hau da, gasen isurpena erdira jaitsi dezala.



12. Begiratu arretaz ondorengo grafikoak. Kokatu datuak taulan. Egin ikusten dituzun datuen iruzkin bat.

*Espainiako lehen mailako energiaren kontsumoaren bilakaera iturrika*


1973




[http://www.appa.es/dch/ener\\_espana.htm](http://www.appa.es/dch/ener_espana.htm)

Iturria: Dirección General de Política Energética y Minas

1999



Iturria: Dirección General de Política Energética y Minas



Iturria: *Dirección General de Política Energética y Minas*

ESPAINIAKO LEHEN MAILAKO ENERGIAREN KONTSUMOAREN BILAKAERA  
ITURRIKA (1973-2030)

|                         | 1973 | 1999 | 2030 |
|-------------------------|------|------|------|
| Petrolioia              |      |      |      |
| Ikatza                  |      |      |      |
| Energia berriztagarriak |      |      |      |
| Nuklearra               |      |      |      |
| Gas naturala            |      |      |      |

Erantzuna:

|                         | 1973 | 1999 | 2030 |
|-------------------------|------|------|------|
| Petrolioia              | %73  | %52  | %39  |
| Ikatza                  | %18  | %17  | %19  |
| Energia berriztagarriak | %8   | %8   | %8   |
| Nuklearra               | %3   | %13  | %6   |
| Gas naturala            | %1   | %11  | %29  |

Energia iturri gisa **petrolioak** betetzen du lehen postua, dena den, berau erabiltzeko beheranzko joera nabari bat ikusten da.

1973ko petrolioaren krisia arte petrolioaren erabilgarritasuna beharra baino handiagoa zen eta petrolio barrilaren prezioa oso merkea zen baina, ondoren, izan zuen prezio igoera handia dela eta, kontsumoa jaitsi egin zen.

Bestalde, desoreka bat dago ekoizpen guneen eta bilakatze eta kontsumorako guneen artean, petrolio bilakatu eta kontsumitzeko guneak herrialde garatuetan egon ohi baitira.

Ingurumenaren degradazioa (marea beltzak), herrialde garatuen eta garapen bidean dauden herrialdeen arteko energiaren desoreka eta erregaiak agortzea nahiz gerrak bezalako faktoreak direla eta, beste energia iturri batzuk garatzera eramán gaitu.

Bigarren energia iturri gisa **ikatz**a dago eta portzentaje hau mantendu egingo da: 1973, %18, 1999, %17 eta 2030 %19.



**Gas naturala** izango da etorkizunerako ikuspegi onenak dituen baliabide fosila. Bero-balio altua du eta petrolioaren ikatza baino gutxiago kutsatzen du. Espainian gas naturalaren kontsumoa igotzen joango da pixkanaka eta 1973an %1 izatetik 2030ean %29 izatera pasako da, honela, urte horretan bigarren postua beteko du petrolioaren atzetik, honek lehen postua betetzen baitu.

**Energia berriztagarriek**, Espainian batez ere energia eolikoak eta eguzkiaren energiak, 1973ko portzentajea mantenduko dute 2030ean, hots, %8. Energia berriztagarri hauek energia tradizionalen aldean eragin txikiagoa edo bat ere ez dute ingurumenean baina inbertsio garestiak izan ohi dira. Agortezinak eta oso ugariak dira eta baliabide naturalak erabiltzean datza. Ekologia taldeek energia iturri hauek erabiltzearen alde egiten dute.

Atomoaren fusioaren bitartez lortutako energia nuklearra ugaritu egin zen energia gisa 1973tik (petrolioaren krisia) 1999ra, %1 izatetik %13 izatera pasa baitzen baina jaistea espero da, honela, 2030. urtean %6 izatera pasako da (kutsadura erradioaktiboa, eztanda nuklear bat izateko beldurra...).

Atomoaren fusioari esker lortu izan den **energia nuklearraren** erabilera haziz joan zen 1973tik (petrolioaren krisia) 1999era bitarte, energi iturrien % 1 izatetik % 13 izateraino iritsi baitzen. Aurreikuspenen arabera beheranzko joera izango du, eta 2030. urterako % 6ko erabilera besterik ez omen da izango (kutsadura erradiaktiboa, leherketa nuklearrak gertatzeko beldurra...).






13. Begiratu arretaz grafiko hauek eta egin hauen inguruko iruzkin bat.

[http://www.indexnet.santillana.es/rcs/\\_archivos/Recursos/geografiahistoria/g11.pdf](http://www.indexnet.santillana.es/rcs/_archivos/Recursos/geografiahistoria/g11.pdf)

### Biztanleria aktiboa Espainian



#### Erantzuna:

**Lehen sektorea:** lehengai eta elikagaien oinarrizko iturriak. Hemen meatzaritza, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza sartzen dira. Lehen sektorea nagusi izatea gutxi garatutako ekonomietako ezaugarria izan ohi da.

**Bigarren sektorea:** lehengaiak bilakatzeko jarduerak hartzen ditu. Industria, artisautza. Eraikuntza ere hemen sartzen da.



**Hirugarren sektorea:** ekonomiako goi funtzioak dira eta ez dira zuzenean baliabide naturaletan oinarritzen: merkataritza, zerbitzuak (osasuna, garraioa, etab.), turismoa, bankua eta finantza jarduerak. Hau da sektorerik nagusiena munduko herrialde aberatsenetan. Honela, honelako herrialde batzuetan, ia baliabide naturalik izan gabe, Holandan esaterako, euren bizi maila bikaina mota honetako jardueratan oinarritzen dute.

Grafiko hauen bitartez Espainiak 1955tik 1996ra izan duen bilakaera ekonomikoa ikus daiteke.

**1955ean** Espainiako ekonomia gutxi garatuta zegoen (Francoren diktadura): biztanleria aktiboaren ia erdiak (%46) lehen sektorean egiten zuen lan (nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza) eta biztanleria aktiboaren beste erdiak bigarren sektorean (industria eta eraikuntza %28) eta hirugarren sektorean (zerbitzuetan %26) egiten zuen lan.

**1980an** (demokrazia) ekonomia garatu bateranzko joera nabaritu da, izan ere, lehen sektorean lan egiten duen biztanleria aktiboa gutxitu egingo da (%18), batez ere laborantza mekanizatu egingo delako, nekazal produktuak inportatuko direlako... gainera, bigarren sektorean lan egiten dutenak gehiago izango dira (%38) baina are gehiago hirugarren sektorean lan egiten dutenak (%44). Hemendik aurrera Espainiak industria-birmoldaketa hasiko du eta zerbitzuen sektorea hazten hasiko da.

**1996an** Espainia herrialde garatua dela esan daiteke, lehen sektorean lan egiten dutenak geroz eta gutxiago baitira (%8,4). Bigarren sektorean ere biztanleria aktiboa geroz eta gutxiago izango da (%29,8) eta zerbitzuen sektorean lan egiten duen biztanleria nabarmen igoko da (%61,8), honela, biztanleria aktiboaren erdiak baino gehiagok egingo du lan sektore honetan.

14. **Bikoteka irakurri ondorengo elkarriketa. Definitu globalizazio terminoak zer esan nahi duen. Bete taula eta lortutako datuekin nahiz irakurri duzuenarekin antolatu eztabaida bat klasean.**






"Globalizazioa teknologia berrietan eta liberalizazio ekonomiko eta politikoan oinarritzen da"

Luis de Sebastian, ESADEko Ekonomia katedraduna

<http://revista.consumer.es/web/es/20000601/entrevista/>

Merkataritzaren eta orokorrean ekonomiaren globalizazio edo mundu mailako bihurtzearen inguruko eztabaidak (klase apalen alde eta herrialde pobreen askapenaren mesederako ote da, ala aitzitik, areagotu baino ez ditu egiten dauden desberdintasun handiak?) gero eta leku gehiago hartzen du hedabideetan eta gaiaren konplexutasuna dela eta, herritar bat baino gehiago noraezean gera liteke.



Eztabaida sozial honetara hurbildu da CONSUMER eta elkarrizketa egin dio Luis de Sebastián, Bartzelonako Ramón Llull Unibertsitateko ESADEko Ekonomia katedradun eta, aurrez, Ignacio Ellacuría zenaren garaian, El Salvadorreko Universidad Centroamericanako errektore orde izanari. Banco Interamericano de Desarrollo erakundeko funtzionario ere izana da gainera. Luis de Sebastianen ustez, merkatuak bere funtzioa bete dezake "ingurune zibilizatuak, etiko eta legezko batean, gizartearentzat baliagarri izateko". Hainbat liburu ere badu argitaraturik: besteak beste, azkena "De la esclavitud a los derechos humanos" (Ariel), "Mundo Rico, Mundo Pobre" (Salterrae) eta "El rey desnudo, cuatro verdades sobre el mercado" (Trotta).

#### **Zer da benetan globalizazioa?**

Ordenagailu bidez zabaltzen diren birusen adibidea jarriko dugu. Filipinetan asmatu zen programa informatiko suntsitzaile batek (I'love you) ordu gutxiren buruan milaka milioi dolarretako galerak eragin zituen mundu guztiko enpresa eta erakunde boteretsuei, USAko Pentagonoa barne. Lehen ez zen horrelakorik gertatzen. Gaur egun mundu guztian zehar konektaturiko sare orokor bat dago eta guztiok elkarri konektaturik gaude gure bizitzako eremu askotan, ekonomiko barne dela. Beste adibide bat: 1997an Tailandiako monetaren (bar-aren) devaluazioa gertatu zen eta horren ondorioz ekonomia krisia sortu zen Asiako herrialdeetan; handik Latinoamerikara pasa zen eta azkenik Europara eta mendebaldeko gainerako herrialdeetara. Leku jakin bateko krisi ekonomiko mundu mailako bihurtu zen egun gutxiren buruan. Eurokopako futbol partidetak iragarkiak mundu guztian ezagutzen diren produktuekin herrialderik gehienetan dauden konpainien iragarkiak izatea ere mundualizazioa da. Labur esanda, globalizazioa nazioartekotze fenomeno bat da, hiru hanka dituena: hanka teknologikoa (adibidez, Internet), ekonomikoa (liberalizazioei esker, dirua mundu guztian zehar mugitu daiteke) eta, azkenik, politikoa: herrialdeek desagerrarazi egin dituzte ia babes guztiak, muga-zergak eta globalizazio horren alde dauden gobernuak aukeratzen dira. Lehen ez zen hori gertatzen, teknologia hori ez zegoelako eta gobernuak beren ekonomiengan kontrol handiagoa ezartzen zutelako.

#### **Globalizazioaren aurkako protesta mugimenduak (Seattle, Washington, Davos...) zergatik sortu dira hain eremu anitzetatik, hau da, ekologista, sindikatu, Hirugarren Munduko herrialdeekiko solidario, antikapitalista eta abarretatik?**

Gizartea ez dago konforme eta erakunde askok Internetek eskaintzen dituen aukerak erabili dituzte beren desadostasuna agertzeko. Sareko hainbat web site-etan kontsignak aldarrikatu eta hainbat herrialdetatik, talde bakoitzaren protestak antolatu eta hainbat gauza partekatu dira. Egia da, bai, agerpen horietan mila modutako interesak daudela ordezkaturik. Seattle-en ipar ameriketako sindikatuek egin zuten protesta, beren merkatuentzat babes handiagoa nahi zutelako eta beste hainbat taldek, berriz, hain zuzen merkatu horren babes txikiagoa eskatzen zutelako, herrialde pobreek beren produktuak hobeto saldu ahal izan zituzten. Edozein modutan ere, mobilizazio horien alderdirik garrantzitsua da herritarrak argi uzten ari direla gobernuari eskutatik ihes egin diela ekonomiaren kontrolak. Gauza jakin batengatik protesta egitera joan gaitezke Udaletxera, estatuko gobernura, erkidegokora... baina beste gauza garrantzitsu askoren



erantzukizuna multinazional handi batean, Bruselan, New Yorkeko Burtsan edo Tokiokoan izango da. Orduan, non eta noren aurrean kexa daiteke jendea? Badira zenbait herrialde eta erakunde oso boteretsu (Nazioarteko Moneta Fondoa, Merkataritzaren Mundu Erakundea...) saltsa hori mugitzen dutenak eta jendeak horien aurrean egiten du protesta Seattle, Washington, Davos edo Pragakoak bezalako bilera garrantzitsuetan. Berdin dio interesak desberdinak izan arren; jendea konturatzen da bere bizitza iristen ez den altuera batzuetatik zuzendurik dagoela eta horregatik irteten du kalera protesta egitera. Kaleko jendearen mugimendu demokratikoa da, besterik gabe erakunde mota horiei kontuak eskatzeko (zer gertatzen da nire lanarekin, ingurugiroarekin, herrialde pobreekin... etorkizunarekin?).

### **Zertan eragin diezaioke globalizazioak herritar xumeari?**

Globalizazioa ez da antikristoa eta izan du gauza bat oso ona ere: produktuak merkeen dauden lekutik inportatzeko aukera ematen digu. Azken urteotan asko jaitsi da autoen prezioa, eta gainera, kalitate hobekoak dira. Uste dut herrialde aberatsetako biztanleoi mesede egin digula globalizazioak. Baina guztiek ez dute onura bera jaso, are gutxiago herrialde pobreek, eta horixe da arazoa.

### **Itzalean diharduten gobernu paraleloak al dira multinazionalak?**

Ez dut uste multinazionalak estatuak eta administrazio publikoen funtzio politikoak bereganatu nahi izango dituztenik. Ez dute gaitasunik eta ez dut uste hori nahi dutenik ere. Botere publikoekin harreman onak izatea eta Administrazioa euren alde izatea nahi dute, diru laguntzak jaso, lursailak merke eskuratu eta ingurugiro gaiekin inork ez ditzala gogaitu. Baina ez dut uste multinazionalak Administrazioen funtzioak bereganatzerik - adibidez, Gizarte Segurantzaren gestioaz arduratzerik - nahi izango dutenik. Enpresa handiei primeran datorkie sortzen dituzten kostuez, adibidez langabezia, kargu egingo den estatu bat izatea. Estatuak diru publikoa komunikazio bide hobeak (autobideak, aireportuak, telekomunikazioak...) sortzen inbertitzea ere komeni zaie, ekonomistek "kanpokotasunak" deitzen dutena sor dezatela, beren produktibitatea eta irabaziak gehitzen lagunduko dietena.

### **Globalizazioan zer funtzio betetzen dute Nazioarteko Moneta Fondoak, Merkataritzako Mundu Erakundeak eta Munduko Bankuak?**

Helburu desberdinak dituzten erakundeak dira. Munduko Bankuak garapen bidean diren herrialdeak ditu helburu; adibidez, Espainiari ez dio mailegurik ematen, eta Espainiak urtero egiten dio ekarpena. Nazioarteko Moneta Fondoa herrialde guztientzat dago, garapen kontuetan espezializatuz doan arren eta ez dakit hori den bere egitekoa. Merkataritzako Mundu Erakundeak ere guztiei zerbitzen die, baina batez ere herrialde aberatsei, horiek baitira merkataritzan gehien aritzen direnak. Lehenik eta behin jakin behar dugu erakunde horiek ez direla finantzatzen dituzten herrialdeengandik independenteak. Adibidez, Nazioarteko Moneta Fondoan (NMF) Estatu Batuek, Japoniak eta Europako Batasunak agintzen dute. Batzuetan, erakunde horiek independenteak direla uste izaten da eta herrialde aberatsen aurka egin dezaketela, baina ez da hala izaten. NMFan eta Munduko Bankuan gehien agintzen duen gizona USAko Altxorren Idazkaria (Ekonomia Ministroa) da, argi eta garbi. Hitz bitan, erakunde horiek ezartzen dituzten politikak, diruz babesten dituzten herrialdeen aldekoak izaten dira. Beste herrialde batzuen garapenean lagundu dutela ere aitortu beharra dago, hala ere. NMFak eta Munduko Bankuak Espainiaren garapen ekonomikoan lagundu zuten 1959an, atzerapenetik eta pobreziatik irteten ari ginenean. Laguntzen hartzaile izan dira Turkia, Israel, Singapur, Korea eta abar ere, gaur egungo garapen ekonomikorako behar zuten bultzada eman baitzitzaion.

### **Herrialde pobre eta aberatsen arteko tartea ixten ala, alderantziz, handitzen ari da zure ustez?**

Gero eta gehiago handituz doa. Aberastasunaren banaketa oso desorekatua ekartzen du globalizazioak. Hainbat jende oso aberats egiten ari da; munduan 200 milioi pezetatik gorako aberastasuna duen 5 milioi pertsona daudela kalkulatzen da. Handiki multzo izugarri horrekin batera, pobrezian bizi den milaka milioi lagun dago.



Ebakia irekiz doa eta ez herrialde aberats eta herrialde pobreen artean bakarrik, baita herrialde beraren barruan ere. Caritas erakundearen arabera, Espainian zortzi milioi pertsona (biztanleriaren bostena) bizi da pobrezian. Horrenbestez, erabakirik hartzen ez bada, kopuruak gora egingo du. Ezin dugu merkatuko zoriaren menpe, globalizazioaren esku utzi (jende askori emango dizkio aukerak eta aberats asko sortuko du), jende askok oso gaizki pasako baitu. Merkatuak ez du pobre eta baztertuengan pentsatuko, beste helburu batzuk ditu eta. Bestalde, herrialde behartsuen artean ere kategoriak daude. Globalizazioak merkataritzako eta finantza inbertsioetako zirkuituetan daudenei egin die mesede. Txina, duela 25 urte, herrialde tristea eta oso behartsua zen eta arazo larriak zituen (okerreko nutrizioa, haurren hilkortasuna, erregimen politiko oso gogorra), baina azken urteotan jauzi handia eman du. Atzerriko kapitalak inbertsio izugarriak egin ditu han eta herrialde nabarmena loratu da globalizazioari esker. Indian ere antzeko zerbait gertatu da, baina Pakistan edo Bangladesh inbertsio isuri horretatik kanpo geratu dira eta ezin izan dira garatu. Afrikara begiratzen badugu, hango jendea gero eta itoago dago miserian, bizitza ekonomiko, sozial eta politikoaren degradazioan. Han ez du inork inbertitzen eta Mendebaldeko gizarteari armen negozioarako eta zor dizkigutenak ordaintzeko baino ez dio balio Afrikak. Globalizazioaren onuretatik kanpo geratu dira herrialde horiek.

### **Egoera honetan, basamortuko hondar alea ote da Bidezko Merkataritza?**

Nazioarteko merkataritzaren zati txiki bat da, baina balio handia du. Bidezko Merkataritzaren defendatzaile sutua naiz; keinu eta salaketa egokia da, Ipar eta Hegoaren arteko merkataritza harremanen bidegabekeriaz jendea ohartarazteko. Ez dut uste arazoa konponduko duenik, baina askoz okerrago da etsipena eta ezer ez egitea. Mugimendu horiek, askorik konpontzen ez duten arren, baliteke kooperatiba edo herri jakin bateko bizitza hobetzea. Horrekin ez dira Hirugarren Munduko arazoak konponduko, baina balio handia dute gizartea kontzientziatzeko. Era horretako ekimen asko babesten dut, besteak beste kanpo zorra barkatzea, inmigranteak hartzea... izan ere, pertsona humanista, aurrerakoi eta kristauek parte hartu behar luke hainbat gauzatan.

## **GLOBALIZAZIOA**

| ALDE ONAK | ALDE TXARRAK |
|-----------|--------------|
|           |              |



**Erantzuna:**

**Definizioa.**

Globalizazioa nazioartekotze fenomeno bat da, bai maila teknologikoan (Internet), bai ekonomikoan (diruaren liberalizazioa dela eta mundu osoan zehar mugi gaitzeko) nahiz politikoan (globalizazioaren aldeko gobernuek muga-zergak ezabatzen dituzte).



*GLOBALIZAZIOA*



| ALDE ONAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    | ALDE TXARRAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"><li>- Produktuak merkeen dauden tokietatik inporta daitezke. Honek, batez ere, herrialde garatuen alde egiten du.</li><li>- Nazioarteko Moneta Funtsak (NMF) eta Munduko Bankuak atzerapen ekonomikoa duten herrialdeek bultzada ekonomikoa izan dezaten laguntzen dute (Turkia, Israel, Singapur, Korea...)</li><li>- Zenbait herrialde onik atera dira atzerriko inbertsioen merkataritza zirkuluan egoteagatik (Txina, India)</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>- Herrialde aberats eta pobreen arteko aldea geroz eta handiagoa da. Herrialde bakoitzean ere ezberdintasun sozial eta ekonomikoa nabari da.</li><li>- Pakistan, Bangladesh eta Afrika zirkulu honetatik at geratu dira. Ez dute inbertsiorik, globalizazioaren onuretatik kanpo geratu dira. Mendebaldeak Afrika armen negozioarako eta zorra kobratzeko erabiltzen du.</li></ul> |



15. Esan zein izan den Espainiako biztanleriaren bilakaera 1900. urtetik 1991. urtera eta zein izan daitekeen 2050. urte arteko bilakaera posiblea. Iruzkina egiterako orduan aztertu jaiotzak, heriotzak, bizi itxaropena, gizonezko eta emakumezkoen arteko proportzioa, arrazoi eta ondorioak...

1990eko Espainiako biztanleriaren piramidea.





#### Erantzuna:

**1900. urtean** jaiotze tasa altua dagoela ikus daiteke (ez dago antisorgailurik, seme-alaba asko behar dituen nekazal giroko gizartean gaude, erlijioak pisu handia du...). Piramidearen formak biztanleria gaztea dela erakusten digu. Pertsona asko jaiotzen dira baina hil ere, asko hiltzen dira. Emakumezkoak baino gizonezko gehiago jaiotzen da, baina ondoren zifrak berdindu egiten dira. Hogeita bost urterekin gizonezko gehiago dago emakumezkoak baino, haurraz erditzen diren eta haurrak dituzten emakumezko asko hiltzen baita (higiene gutxi, aurrerapen gutxi medikuntzan, elikadura txarra). Berrogei urtetik aurrera heriotza tasa handiagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino.

Igoerak 30-40-50-60 urterekin daude, hauek 30, 40,50 eta 60 urte lehenago jaio zirenei egiten diete erreferentzia (jaiotze tasa altua).

Bizi-itxaropena ez da oso altua. Hirurogei urtetatik aurrera heriotza tasa altua da. Gizonezko gehiago hiltzen da emakumezkoak baino.

**1991. urtean** jaiotzak asko jaitsiko dira (antisorgailuak, emakumea etxetik kanpo hasten da lanean, balore berriak daude, pentsaera aldaketa, hiri giroko gizartea, ongizatea...).

Bizi-itxaropena ere igo egin da (elikadura hobea, aurrerapenak medikuntzan...). Hirurogeita hamar urtetatik aurrera heriotzak nabarmen ugaritzen dira. Bizi-itxaropena altuagoa dute emakumeek. Biztanle gehienek 10 eta 40 urte bitarte dituzte (biztanleria gaztea) garai hartan jaiotze tasa altua izan baitzen. Hala ere, hurrengo urteetan biztanleria zahartzeko bidetik goaz, jaiotze tasa nabarmen jaitsi baita.

**2025. urtean**, jaiotze tasa are txikiagoa izango da eta pertsona gehienek 40 eta 70 urte bitarte izango dituzte (biztanleria nabarmen zahartzeko da) eta bizi-itxaropena altutuko da (100 urte baino gehiago izango dituzten pertsonak daude). Gizarte Segurantzarekin arazoak egon daitezke. Etorkinei ateak ireki beharko zaizkie.





**2050. urtean** biztanleriak zahartzen dirau baina jaiotze tasa ez da gehiago jaitsiko, bere horretan finkatuko da. Erretiratzeko adina duten pertsona asko dago (arazo ekonomikoak egon daitezke). Bizi-itxaropena geroz eta altuagoa izango da.

16. Gaur egungo mapa bat erabili eta identifikatu Bilbok XIV eta XIX. mendeen artean izan duen etengabeko hazkundea.  
Erabili kolore ezberdinak batetik, Bilbo hasiera adierazteko eta, bestetik, Bilboko zabalkundea adierazteko.

➤ Identifikatu ondorengo eraikinak:





- XIX. mende amaieran eraikitako eraikin hauek identifikatu dituzunean koka itzazu Bilboko mapan. Margotu Bilboko kalerik garrantzitsuena: Kale Nagusia (Gran Vía).



Iturria: "Las ciudades a través de la historia: Bilbao, un caso particular" gaztelania aholkularitza, Abandoko Berritzegunea eta Getxo eta Leioako Berritzeguneen aholkularitzak.

- Egungo Bilboko mapa ikusi eta begiratu arretaz zein izan diren XX. mendean zehar eraikitzen joan diren auzoak.

#### 17. Azaldu:

- Irakurri honako dokumentu hau eta ideia nagusienak hartuta egin mapa kontzeptual bat.
- Bilatu zein autonomia erkidegok duen probintzia bakarra eta zeinek dituzten bi edo gehiago. Sartu informazio hau mapa kontzeptualean.

##### Gobernu lokala

1978ko Konstituzioak bi autonomia erkidego mota sortu zituen eta mota bakoitzak botere ezberdinak zituen. Katalunia, Euskal Herria eta Galizia 'nazionalitate historiko' gisa definitu zituzten eta autonomia errazago lortu zuten. Prozesu hau luzeagoa eta zailagoa izan zen beste lurralde batzuentzat. Autonomia erkidegoek autogobernu botere nabarmena lortu dute eta oraindik ere gobernu zentralarekin negoziazioek diraute konpetentzia gehiago lortzeko.

Hamazazpi autonomia erkidegoetako bakoitzak ganbera bakarreko legebiltzarra aukeratzen du eta honek lehendakari bat hautatzen du legebiltzarra osatzen duten kideen artean. Zazpi dira probintzia bakar batez osatzen diren autonomia erkidegoak, gainerako hamarrek bi edo gehiago dituzte. Probintzia bakoitzak, 50 guztira, Barne Ministroak izendatutako gobernadore zibil bat du. 8.000 udalerrietako bakoitza gobernatzeko herriak hautatutako kontzeju bat dago eta kontzeju honek kideetako bat aukeratzen du alkate gisa.

[http://es.encarta.msn.com/encyclopedia\\_761575057\\_5/España.html](http://es.encarta.msn.com/encyclopedia_761575057_5/España.html)



**Erantzuna:**


**1978KO KONSTITUZIOA, AUTONOMIEN ESPAINIA**

Probintzia 1 duten 7 erkidego daude:

- Madril
- Asturias
- Kantabria
- Errioxa
- Nafarroa
- Murtzia
- Balearrak

2 probintzia edo gehiago dituzten 10 erkidego daude:

- Galizia nazionalitate historikoa (autonomia lortzeko bide erraza)
- Euskal Herria nazionalitate historikoa (autonomia lortzeko bide erraza)
- Aragoi
- Katalunia nazionalitate historikoa (autonomia lortzeko bide erraza)
- Gaztela Leon
- Gaztela Mantxa
- Valentziako autonomia erkidegoa
- Extremadura
- Andaluzia
- Kanariak







18. Kokatu mapa honetan autonomia erkidegoak.



[http://www.dormirencasasrurales.com/include/casas\\_rurales/provincia/images/mapa.jpg](http://www.dormirencasasrurales.com/include/casas_rurales/provincia/images/mapa.jpg)

Erantzuna:



<http://www.educared.net/congresoii/img/internas/espana.gif>



## PROBARAKO ADIBIDEA

### Puntuak: 2 puntu galdera bakoitzeko

1. Idatzi ibaien izenak beheko mapa honetan. Azaldu Iberiar Penintsularen hidrografiari buruz dakizuna.

MAPA DE RELIEVE DE ESPAÑA



<http://www.indexnet.santillana.es/racs/archivos/Recursos/geografia/historia/relievespana.pdf>

2. Aukeratu galderetako bat eta erantzun.

- ✓ Zein inbertsiotara bideratu dira Euskal Autonomia Erkidegoak Europar Batasunetik jaso dituen dirulaguntzak?
- ✓ Zer dakizu liburu zuriari eta Europar Batasuneko industria-politikari buruz?



**3. Kokatu mapa honetan autonomia-erkidegoak.**



[http://www.dormirencasasrurales.com/include/casas\\_rurales/provincia/images/mapa.jpg](http://www.dormirencasasrurales.com/include/casas_rurales/provincia/images/mapa.jpg)

**4. Definitu honako kontzeptu hauek (aukeratu 3)**

- Lehen sektorea
- Bigarren sektorea
- Hirugarren sektorea
- Globalizazioa
- Inmigrazioa
- Azpiegitura

**5. Esan zein diren hiriaren funtzioak.**




## PROBARAKO ADIBIDEEN ERANTZUNAK

### Puntuak: 2 puntu galdera bakoitzeko

1. Idatzi ibaien izenak beheko mapa honetan. Azaldu Iberiar Penintsularen hidrografiari buruz dakizuna.

MAPA DE RELIEVE DE ESPAÑA



<http://www.indexnet.santillana.es/rcs/archivos/Recursos/geografia/historia/relievespana.pdf>

Erantzuna:



<http://www.meteored.com/imagenes/mapaconrios1.gif>

(Kontseptatu edozein atlas)

Erliebeak eta klimak zehatz-mehatz mugatzen dituzte Iberiar Penintsulako hiru isurialde hidrografiko handiak: isurialde kantauriarra, isurialde atlantikoa eta isurialde mediterranearra.





### 1.- Isurialde kantauriarra

Iberiar penintsulako iparraldean eta ipar-ekialdean kokatua. Miñotik hasi eta Bidasoa ibairaino zabaltzen da. Prezipitazioak erregularrak eta ugariak dira eta tenperaturan ez dago kontraste handirik, horregatik, ibaiak emaritsuak eta erregularrak dira. Ibai hauek garapen urria ageri dute, itsasoa mendi-goietatik hurbil baitago. Hauek dira ibairik garrantzitsuenak: Bidasoa, Deba, Ibaizabal, Sella, Nalon, Navia, Tambre eta Ulla.

### 2.- Isurialde atlantikoa

Hemen sartzen dira Mesetako ibai handiak (Duero, Tajo eta Guadiana) eta Guadalquivir ibaia. Ibai hauek ez dute Atlantikoaren eraginik jasotzen goi eta erdi ibilguan, Mesetako egoera klimatikoaren isla dira, sasoi lehor eta euritsuak barne, eta emaria barneko mendietako ibilguetatik jasotzen dute funtsean, hots, Iberiako Mendietatik, Erdialdeko Mendietatik, Toledoko Mendietatik eta Sierra Morenatik.

### 3.- Isurialde mediterranearra

Hemengo ibaiak Mediterraneoan itsasoratzen dira, Creus lurmuturraren eta Tarifako haitz-puntaren artean. Ibai motzak dira, oso aldapatsuak hasieran, emari gutxiak, oso irregularrak, agorraldi luzeak eta berealdiko uholdeak jasotzen dituztenak, Pirinioetako ibaiak edo Segura eta Júcar ibaiak izan ezik, horiek ibilgu luzeagoak dituzte.

Ebroren berezitasuna azpimarratu beharra dago. Ebro Tres Mares-eko haitz-puntan jaiotzen da, Peñalabran, eta Mediterraneoan itsasoratzen da 928 kilometro egin ondoren. Goi-ibilguan klima hezeko gune bat pasatzen du eta Kantauriar Mendizerrako ibaiadarrek jasotzen ditu; erdi- eta behe-ibilguan ibaiadar emaritsuenak jasotzen ditu. Itsasora iritsi aurretik, Tortosa hiria pasa ondoren, delta bat zabaltzen da, Mediterraneoan 30 kilometrotan sartzen dena.

## 2. Aukeratu galderetako bat eta erantzun.

- ✓ Zein inbertsionetara bideratu dira Euskal Autonomia Erkidegoak Europar Batasunetik jaso dituen dirulaguntzak?
- ✓ Zer dakizu liburu zuriari eta Europar Batasuneko industria-politikari buruz?

### Erantzuna:

- ✓ Zein inbertsionetara bideratu dira Euskal Autonomia Erkidegoak Europar Batasunetik jaso dituen dirulaguntzak?

Hona zertara bideratu diren dirulaguntzak:

- Ekoizpen-jarduerak sortzera, industriaren azpiegitura hobetzeko, zerbitzuen sektoreari laguntzeko...
  - Ingurumena babestu eta hobetzera: kutsaduraren aurka egitea, baliabide naturalak kudeatzea, ingurumen naturala sustatzea (Valderejoko natur parkea), hiri-hondakinak tratatzea eta urak araztea...
  - Ikerketa eta prestakuntza bultzatzera, teknologia eta ikerketa zentroen lanari esker nahiz enpresen bitartez.
  - Komunikazioak hobetzera.
  - Nekazaritzaren sektorea hobetzea: ureztatzeak, mendiko nekazaritza dibertsifikatzea, landa-turismoa sustatzea, merkaturatze baldintzak hobetzera...
  - Degradatutako hiri-guneak berreskuratzea.
- ✓ Zer dakizu liburu zuriari eta Europar Batasuneko industria-politikari buruz?

Batzordeak 1993ko abenduan aurkeztu zien estatu eta gobernu buruei "hazkunderako, lehiakortasunerako eta enplegurako liburu zuria", eta bertako ondorioak Europar



Batasuneko Kontseiluak onartu zituen. Liburu Zuriak Europako industria-egoeraren balantzea egiten du eta politikarako jarduketa-ildo batzuk proposatzen ditu, egungo arazoak gainditzea helburu.

Hauek dira Europako industriaren lehiakortasun baxuaren eragileak:

- Europako industriak lan-kostu handiak jasaten ditu, AEBetakoak eta Japoniakoak baino handiagoak.
- Europako laneko produktibitatearen hazkunde-tasa txikia (EBean %45 1980 eta 1993 artean, aldiz, Japonian %52 eta AEBetan %64 izan zuten).
- Inbertsio-tasa baxua Europako ekonomian.
- Azken urteetako esfortzuak esfortzu, I+G (Ikerketa eta Garapena) arloko inbertsioa Japoniak eta AEBek bideratzen dutena baino baxuagoa da oraindik ere (BPGaren %2a EBean, %2,8a AEBetan eta %3a Japonian).

Egoera horren aurrean, Liburu Zuriak hainbat alternatiba osagarri hartzen ditu kontuan Europako industriaren lehiakortasuna hobetzeko, ezinbesteko elementua baita Europako ekonomiak behar dituen hazkunde-tasa eta enplegu-sorrera erdiesteko.

Industria-politikaren esparruan, Liburu Zuriak honako jarduketa arlo hauek identifikatzen ditu:

- 1) Lehenik eta behin, lehiakortasun orokorra hazteko oinarriak jartzea aipatzen da; enpresek lankidetzak modu malguak eskatzen dituzte maila juridiko eta fiskalean, beharrezkoak dituzten itunak ezarri eta euren lehiakide amerikar eta japoniarren pisuari aurre egiteko.
- 2) Liburu Zuriak gure industria-politikaren erdigunean kokatzen du Europa barneko azpiegituren eta sareen garapen-politika. Izan ere, garapen-politika hori garrantzitsua da enplegu zuzena eta inbertsioa sortzeko, eta lehiakortasun orokorrean eragiten du.
- 3) Europar Erkidegoan 1990. urtean gertatzen zen bezala, oraindik orain, Ikerketa eta Garapen arloko esfortzuak du lehentasuna industria-politikan. Liburu Zuriari jarraiki, Europako ikerketa-sistemaren urritasunik larriena da, ez dela gai aurrerapen zientifikoak eta lorpen teknologikoak industria-eremutik onetan eta arrakasta komertzialean bihurtzeko.

Urritasun horri aurre egiteko proposatzen den irtenbideak nazio nahiz erkidego mailako neurriak hartzen ditu, hala nola, zerga-arinketa ikertzaile eta ingeniariarentzako lanpostuak sortzen dituzten enpresentzat, eta giltzarri den teknologian indarrak biltzea.

- 4) Ildo beretik, Liburu Zuriak bioteknologia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak sektore garrantzitsuenetarikotzat jo ditu, Europako ekonomiaren lehiakortasunak etorkizunean izango duen bilakaerari begira.

Rafael García Palencia Cebrián. "La política industrial en los años 90 y su relación con la política de defensa de la competencia".



3. Kokatu mapa honetan autonomia-erkidegoak.



[http://www.dormirencasasrurales.com/include/casas\\_rurales/provincia/images/mapa.jpg](http://www.dormirencasasrurales.com/include/casas_rurales/provincia/images/mapa.jpg)

Erantzuna:



<http://www.educared.net/congresoii/img/internas/espana.gif>

4. Definitu honako kontzeptu hauek (aukeratu 3)

- Lehen sektorea
- Bigarren sektorea
- Hirugarren sektorea
- Globalizazioa
- Inmigrazioa
- Azpiegitura

Erantzuna:

**Lehen sektorea:** Lehengaien eta elikagaien oinarritzko iturriak. Meatzaritza, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza hartzen ditu.

**Bigarren sektorea:** Lehengaiak bilakatzen dituzten jarduerak hartzen ditu. Industria, artisautza. Eraikuntza ere hartzen du.



**Hirugarren sektorea:** Ekonomiaren goi-funtzioak dira, baliabide naturaletan zuzenean oinarritzen ez direnak: merkataritza, zerbitzuak (osasuna, garraioak etab.), turismoa, bankua eta finantza-jarduera.

**Globalizazioa** internalizazio fenomeno bat da, maila teknologikoan (Internet), ekonomikoan (diruaren liberalizazioa dela eta, mundu osoan barrena mugi gaitetze) eta politikoa (globalizazioaren aldeko gobernuek muga-zergak ezabatzen dituzte).

**Inmigratzea:** Herrialde batera beste herrialde bateko jatorrizkoak iritsi eta bertan ezartzea.

**Azpiegitura:** Edozein erakunde sortu edo martxan jartzeko beharrezkoak diren elementu edo zerbitzuen multzoa (azpiegiturak arlo soziopolitikoan, ekonomikoan...).

## 5. Esan zein diren hiriaren funtzioak.

### Erantzuna:

- Merkatal funtzioa. Hiriari gehien dagokion funtzioa eta Espainian hiri gehienek sortzaile izan dena.
- Bizileku funtzioa. Biztanleria auzoka banatzen da, baldintza ekonomiko, sozialen eta kulturalen arabera. Horrenbestez, gizartea argi eta garbi zatitzen da maila baxuko, erdi mailako nahiz maila altuko auzoetan.
- Funtzio industrial. Lehen hiriak meatokien alboan garatu ziren (Bilbo, Oviedo, Avilés) edota komunikabideetatik gertu (Madril, errepide eta trenbide sarearen erdigunea; Bilbo eta Bartzelona, portu garrantzitsuen ondoan). Gaur egun, fabrika guztiak industria-poligonoetan daude, hiri inguruan, ongi komunikatuta eta lan-eskutik hurbil.
- Funtzio politikoa eta administratiboa. Funtzio hau berezkoa dute estatu bateko, autonomia-erkidegoetako edota probintzietako hiriburuek; administrazio-kudeaketarako gune dira, erakunde eta instituzio politikoaren egoitza eta, era berean, finantza-taldeak erakartzen dituzte, komunikazio-enpresen egoitza gisa balio dute...
- Unibertsitate eta kultura funtzioa. Unibertsitate gune klasikoak (Santiago de Compostela, Salamanca, Granada, Madril kasu) beste berri batzuk gehitu zaizkie, museoekin lotutako jardueren, eskola teknikoaren nahiz ikerketarako eskolen kokaleku direnak.

Espainiako hirietan eragin txikiagoa duten bestelako funtzioak jarduera turistiko, terapeutiko, militar edo erlijiosoen ingurukoak dira.



**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA ADIERAZLEEN ARTEKO  
ELKARREKIKOTASUNAK**

| <b>Galdera</b> | <b>Ezagutza-adierazleak</b> |
|----------------|-----------------------------|
| 1              | 3.1                         |
| 2              | 2.1/2.2/4.2/                |
| 3              | 5.4                         |
| 4              | 4.1/4.3/4.4/5.1/            |
| 5              | 5.2                         |



## PROGRAMAZIOA ETA IKASKETARAKO BALIABIDEAK

### • PROGRAMAZIOA

#### MODULUAREN IKUSPEGI OROKORRA

**Geografiaren moduluan barrena ibilbide didaktiko hau** egiteko, moduluko curriculumara osatzen duten blokeetan, edukietan eta ezagutza-adierazleetan oinarritu gara.

Modulua lau zatitan dago banatuta. Lehenengo zatiari 1. eta 3. eduki-blokeak dagozkio, "Espazio geografikoa" eta "Natura eta ingurumena Espainian eta Euskal Herrian". Bigarren zatiari 3. eduki-blokea dagokio, hots, "Espazio geografikoa jarduera ekonomikoetan Espainian eta Euskal Herrian". Hirugarren zatiari 5. blokea dagokio, "Giza baliabideak eta espazioaren antolakuntza Espainian eta Euskal Herrian" eta laugarrenari 2.a, hau da, "Europa eta Europar Batasuna".

Lehenengo zatian 1. eta 3. eduki-blokeak bateratu ditugu, uste baitugu horrela errazagoa izango dela, bai irakasleentzat azaltzea bai ikasleentzat ulertzea, bi blokeetako edukiak elkarren osagarri baitira.

Lehenengo zatiari "Informazio geografikoa eta bitarteko ekogeografikoak" deitu diogu. Hasteko, informazio kartografiko, grafiko eta estatistikorako hurbilketa bat egingo da eta, ondoren, ingurune fisikoarekin lotutako ikasketa-unitateak aztertuko dira (erliebea, lurrak, klimak, ura eta landaretza), gero Iberiar Penintsulako eta Euskal Herriko ingurune fisikoa hartuko da oinarri. Lehen zatiaren amaieran naturaren eta gizakiaren arteko elkarrekintza aztertuko da. Hemen ingurumena, garapen iraunkorra... bezalako terminoak azalduko dira.

Bigarren zatiari "Espazio geografikoa eta jarduera ekonomikoa" deitu diogu. Zati horretan emango diren ikasketa-unitateak Espainia eta Euskadiko lehen, bigarren eta hirugarren sektoreetako jarduera ekonomikoekin egongo dira lotuta. Bigarren zati horren azken unitatean giza jarduera eta berorrek Espainiako eta Euskadiko baliabideen ustiaketan dituen ondorio sozioekonomikoak nahiz ingurumenekoak aztertuko dira.

Hirugarren zatia "Biztanleria, hirigintza sistema eta lurraldearen antolakuntza" deitu dugu. Hasieran Espainia eta Euskadiko biztanleria eta hiriak aztertuko dira. Amaitu, berriz, 1978ko Konstituzioaz geroztik Espainian izan den lurralde antolakuntza berriarekin amaituko da.

Laugarren zatiak "Europar Batasuna" izena du. Zati horretan ikasketa-unitate bakarra lantzen da: Europar Batasuneranzko prozesua, prozesu honen etapak, Europar Batasunaren lurralde-egitura eta erakunde-egitura eta Espainia Europar Batasunean.

Moduluaren oinarria 11 ikasketa-unitatek (IU) osatzen dute; hona hemen labur-labur azalduta.



| <b>Eduki-blokeak</b>                                                                | <b>Ikasketa Unitateak</b> | <b>Izendapena</b>                                                                                 | <b>Ordu kopurua</b> |
|-------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------|
| 1.- Informazio geografikoa eta bitarteko ekogeografikoak (1. eta 3. eduki-blokeak)  | IU 1                      | Informazio kartografikoa, grafikoa eta estatistikoa.                                              | 7                   |
|                                                                                     | IU 2                      | Ingurune fisikoa: erliebea.                                                                       | 9                   |
|                                                                                     | IU 3                      | Ingurune fisikoa: klimak, urak eta landaretza.                                                    | 9                   |
| 2.- Espazio geografikoa eta jarduera ekonomikoa (4. eduki-blokea)                   | IU 4                      | Lehen sektoreko jarduerak: nekazaritzarako espazioak, basoak eta arrantza.                        | 9                   |
|                                                                                     | IU 5                      | Bigarren sektoreko jarduerak. Industrieguneak. Energia-iturriak.                                  | 8                   |
|                                                                                     | IU 6                      | Hirugarren sektoreko jarduerak: garraioak, komunikabideak, merkataritza eta turismoa.             | 8                   |
|                                                                                     | IU 7                      | Giza jarduera. Baliabideak ustiatzeak dituen ondorio sozioekonomikoak eta ingurumenekoak.         | 7                   |
| 3.- Biztanleria, hirigintza sistema eta lurraldearen antolakuntza (5. eduki-blokea) | IU 8                      | Biztanleria.                                                                                      | 8                   |
|                                                                                     | IU 9                      | Hirigintza prozesua.                                                                              | 9                   |
|                                                                                     | IU 10                     | Estatu espainiarreko eta Euskal Herriko lurraldearen antolakuntza 1978ko Konstituzioaren garaian. | 7                   |
| 4.- Europa eta Europar Batasuna (2. eduki-blokea)                                   | IU 11                     | Europar Batasuna.                                                                                 | 9                   |

### **1. Ikasketa Unitatea: INFORMAZIO KARTOGRAFIKOA, GRAFIKOA ETA ESTATISTIKOA. (7 ordu)**

Ikasketa unitate honetan prozedurak landuko dira, batez ere. Aurreko ikasturteetan landutako prozedura geografikoak berrikusiko dira.

Uste dugu ikasketa unitate hau oso erabilgarria izango dela gure ikasleentzat, geografian erabiltzen diren teknika eta prozedurak ulertzen lagunduko baitiete, baita ezagutza horiek sendotu eta praktikan jartzen ere.

Edukiak:

#### **1.- Lurrazaleko lokalizazioa**

1.1.- Sare geografikoa: paraleloak eta meridioak

1.2.- Koordinatu geografikoak

#### **2.- Mapak**

2.1. Proiekzio kartografikoak. Mercator eta Peters proiektzioak

2.2. Mapa-motak: mapa topografikoak; gaikako mapak

2.3. Mapen elementuak: legenda, eskala, sestra-kurbak, koloreak

#### **3.- Grafikoa eta datu estatistikoa**

3.1. Barra-grafikoa

3.2. Grafikoa biribila

Lan-prozedura:

- Nola kontsultatu atlasak
- Mapa geografiko baten azterketa eta iruzkina
- Grafikoa egitea segida estatistikoa batzuei jarraiki
- Grafikoen azterketa eta iruzkina





## **2. Ikasketa Unitatea: INGURUNE FISIKOA: ERLIEBEA (9 ordu)**

Bigarren ikasketa unitate honetan erliebea erabakitzen duten faktoreak aztertzen dira, Penintsulako eta Euskal Herriko erliebeko ezaugarri orokorrak, horien bilakaera geologikoa, materialak eta paisaia.

Edukiak:

1.- Erliebea erabakitzen duten faktoreak

1.1. Faktore tektonikoak

1.2. Faktore litologikoak

1.3. Higadura-faktoreak

2.- Iberiar Penintsulako erliebea

2.1. Bilakaera geologikoa

2.2. Penintsulako litologia eta paisaiak

3.- Euskal Herriko erliebea

3.1. Bilakaera geologikoa

3.2. Litologia eta paisaiak

Lan-prozedura:

- Gaikako mapen azterketa eta iruzkina (mapa fisikoak, geologikoak, litologikoak)
- Modelatu ezberdinetako argazkien azterketa eta iruzkina (granitozko modelatua, karstikoa, buztintsua)

## **3. Ikasketa Unitatea: INGURUNE FISIKOA: KLIMAK, URAK ETA LANDARETZA (9 ordu)**

Ikasketa unitate honetan klima, urak eta landaretza sartu ditugu, elkar lotuta azaltzen diren hiru elementu direlako. Iberiar Penintsulako eta Euskal Herriko klimak, landaretza eta ibaiak landuko dira.

Edukiak:

1.- Klima

1.1. Klima erabakitzen duten faktoreak

- Faktore astronomikoak
- Faktore termodinamikoak: zirkulazio atmosferikoa ingurune epelean.
- Tokiko faktoreak: erliebea eta ozeanoaren eragina.

1.2. Klimaren elementuak:

- Tenperaturak.
- Hezetasuna.
- Prezipitazioak.
- Presio atmosferikoa.

1.3. Iberiar Penintsulako eta Euskal Herriko klimak:

- Klima ozeaniarra.
- Klima mediterranearra.
- Klima erdi idorra.
- Mendiko klima.

2.- Ur kontinentalak

2.1. Iberiar Penintsulako eta Euskal Herriko ibaiak

2.1.1. Ibaietako elementu nagusiak:

- Ur-emia.
- Urtaroetako aldaketak.
- Irregularitasuna.



- Uholde eta agorraldiak.

- 2.1.2. Iberiar Penintsulako eta Euskal Herriko ibaien sailkapena
- 2.1.3. Penintsulako eta Euskal Herriko lakuak, urmaelak eta hezeguneak
- 2.1.4. Lurrazpiko urak

### 3.- Landaretza

#### 3.1. Iberiar Penintsulako eta irletako landaretza:

- Lokalizazio faktoreak.
- Eskualde biogeografikoak.

#### 3.2. Euskal Herriko landaretza.

#### Lan-prozedura:

- Gaikako mapen azterketa eta iruzkina (mapa hidrografikoak, klimatikoak, landaretzarenak)
- Grafikoak egin, aztertu eta iruzkintzea: klimograma.

## **4. Ikasketa Unitatea: LEHEN SEKTOREKO JARDUERAK: NEKAZARITZARAKO ESPAZIOAK, BASOAK ETA ARRANTZA (9 ordu)**

Ikasketa unitate honetan Espainiako eta Euskal Herriko nekazaritzarako, abeltzaintzarako eta basotarako guneak ikasiko dira. Gainera, Espainiako eta Euskal Herriko arrantza jarduera aztertuko da. Azkenik, Europar Batasuneko politikak jarduera horietan zer nolako eragina duen eta nola baldintzatu edo euren alde egiten duen ere aipatzen da.

#### Edukiak:

##### 1.- Nekazal egituraren elementuak:

- Natura-ingurunea.
- Landa-guneko biztanleria.
- Ekoizpenerako bitartekoak.
- Nekazal ustiapenak.

##### 2.-Nekazaritzarako, abeltzaintzarako eta basoen ustiaketarako guneak Espainian.

##### 3.-Nekazaritzarako, abeltzaintzarako eta basoen ustiaketarako guneak Euskal Herrian.

##### 4.- Nekazaritza, basogintza eta ingurumena.

##### 5.- Nekazaritza iraunkorra.

##### 6.- Arrantza:

- Arrantza Espainian.
- Arrantzarako eskualdeak eta harrapatutako espezieak.
- Arrantza Euskadin.

##### 7.- Europar Batasuna eta lehen sektorea:

- Nekazaritzako Politika Bateratuak (NPB) Espainiako eta Euskadiko nekazaritzan duen eragina.
- Europar Batasuneko arrantza politikak Espainian duen eragina.

#### Lan-prozedura:

- Europar Batasunak sektore honetan ematen duen politikari buruzko testuen azterketa eta iruzkina.
- Nekazal paisaia ezberdinak... agertzen dituzten argazkiak aztertu eta interpretatzea.



## **5. Ikasketa Unitatea: BIGARREN SEKTOREKO JARDUERAK. INDUSTRIAGUNEAK. ENERGIA-ITURRIAK. (8 ordu)**

Ikasketa-unitate honetan Espainiako eta Euskadiko industria lantzen da. Hasieran lehengaiak eta energia-iturriak ikusten dira. Ondoren, Espainiako industriaren historia aztertzen da labur-labur, 70eko hamarkada amaierako krisi ekonomikora iritsi arte, eta industria-birmoldaketaren garrantzia aztertzen da. Ondoren, industriak Espainian eta Euskal Herrian duen kokapena aztertzen da, industria motak eta ingurumenaren gaineko eragina.

Edukiak:

- 1.- Lehengaiak eta energia-iturriak
- 2.- Espainiako industria
  - 2.1. Industriaren historia industria-birmoldaketa arte
  - 2.2. Industria-birmoldaketa
  - 2.3. Industriak Espainian duen kokapena
- 3.- Industria Euskadin.
  - 3.1. Industriaren historia industria-birmoldaketa arte
  - 3.2. Industria-birmoldaketa
  - 3.3. Industriaren kokapena
  - 3.4. Eusko Jaurlaritzaren industria-politika
- 4.- Industria eta ingurumenaren gaineko eragina

Lan-prozedura:

- Industriaren kokapenari buruzko mapak aztertu eta interpretatzea.
- Industria paisaia ezberdinak agertzen dituzten argazkiak aztertu eta interpretatzea.
- Grafikoak aztertu eta interpretatzea (sektore ekonomikoen bilakaera, biztanleria aktiboaren banaketa sektore ekonomiko bakoitzeko...).
- Gaiari buruzko testuak aztertu eta interpretatzea.

## **6. Ikasketa Unitatea: HIRUGARREN SEKTOREKO JARDUERAK: GARRAIOAK, KOMUNIKABIDEAK, MERKATARITZA ETA TURISMOA. (8 ordu)**

Espainia eta Euskadiko hirugarren sektoreko jarduera nagusiak, garraioak, komunikabideak, merkataritza eta turismoa aztertuko dira, hirugarren sektoreko bestelako jarduerak aztertu eta, amaieran, garraioak eta turismoak ingurumenaren gainean duten eragina aztertuko da.

Edukiak:

- 1.- Espainiako ekonomian hirugarren sektorea geroz eta nagusiagoa
- 2.- Garraioa.
- 3.- Komunikabideak.
- 4.- Merkataritza.
- 5.- Turismoa.
- 6.- Hirugarren sektoreko beste jarduerak.
- 7.- Komunikabideak, turismoa eta ingurumenaren gaineko eragina.



Lan-prozedura:

- Gaikako mapak aztertu eta interpretatzea (errepide, portu eta aireportu sarea, zerbitzuen sektorea autonomia-erkidego bakoitzean...).
- Paisaia turistikoak eta ingurumenaren gaineko eragina agertzen duten argazkiak aztertu eta interpretatzea.
- Grafikoak aztertu eta interpretatzea (sektore ekonomikoen bilakaera, biztanleria aktiboaren banaketa sektore ekonomiko bakoitzeko...).
- Datu estatistikoak aztertu eta interpretatzea.
- Gaiari buruzko testuak aztertu eta interpretatzea.

## **7. Ikasketa Unitatea: GIZA JARDUERA. BALIABIDEAK USTIATZEAK DITUEN ONDORIO SOZIOEKONOMIKOAK ETA INGURUMENEOAK (7 ordu)**

Beste ikasketa unitateetan gaiari erreferentzia egin baldin bazaio ere, honako honetan azterketa orokorrako eta, era berean, zehatzago bat egiten da giza jarduerari buruz eta jarduera horrek paisaian eta ingurumenean duen eraginari buruz. Hasteko, gizakiak natura-ingurunea nola bilakatu duen aztertzen da, ondoren ekoizpen sistemak nahiz sistema horiek dakartzaten ingurugiro-arazoak aztertzen dira eta, amaitzeko, paisaia bera aztertzen da, hainbat faktoreren elkarrekintzaren ondorio den heinean.

Edukiak:

- 1.- Gizakiaren elkarrekintza - Natura
  - 1.1. Gizakiak natura-ingurunean eragin duen bilakaera.
  - 1.2. Ekoizpen sistemak eta ingurumeneko arazoak
  - 1.3. Aldaketak sistema naturalean

- 2.- Paisaia hainbat faktoreren elkarrekintzaren ondorio gisa

Lan-prozedura:

- Ingurumenaren gaineko eragina agertzen duten argazkiak eta irudiak aztertu eta interpretatzea.
- Gaiari buruzko testuak irakurri eta horien interpretazioa eta iruzkina egitea.

## **8. Ikasketa Unitatea: ESPAINIAR ETA EUSKAL BIZTANLERIA (8 ordu)**

Espainiar eta euskal biztanleria landuko da. Hasteko, biztanleria aztertzeko iturriak zein diren ikusiko da, biztanleriaren bilakaera eta banaketa, mugimendu naturalak eta migrazioak ikusi eta, amaitzeko, biztanleriaren egitura aztertuko da.

Edukiak:

- 1.- Biztanleria aztertzeko iturriak.
- 2.- Biztanleriaren bilakaera Espainian eta Euskal Herrian
- 3.- Espainiar eta euskal biztanleriaren mugimendu naturalak
  - 3.1. Jaiotze-tasa
  - 3.2. Heriotza-tasa
- 4.- Migrazioak Espainian eta Euskadin
  - 4.1. Kanpo-migrazioak
  - 4.2. Atzerriko inmigrazioa
  - 4.3. Barne-migrazioak



5. Biztanleriaren egitura Espainian eta Euskadin
- 5.1. Osaera sexuaren eta adinaren arabera: biztanleria-piramideak.
- 5.2. Biztanleriaren osaera jarduera ekonomikoko sektoreen arabera
- 5.3. Biztanleriaren osaera eskolatzeko-mailaren arabera

Lan-prozedurak:

- Biztanleria-piramideak egin eta interpretatzea.
- Bestelako grafikoak interpretatzea (biztanleria aktiboa sektore ekonomikoaren arabera banatzea, biztanleriaren bilakaera, jaiotze-tasa beste herrialdeekin alderatuta...).
- Segida estatistikoen azterketa eta interpretazioa.
- Gaikako mapak aztertu eta interpretatzea (biztanleriaren dentsitatea, migrazioak...).
- Gaiari dagozkion testuak irakurri eta interpretatzea.

### 9. Ikasketa Unitatea: HIRIGINTZA PROZESUA (9 ordu)

Unitate honetan Estatu espainiarreko eta Euskadiko hirigintza-prozesua aztertuko da. Hasteko, hainbat plano aztertuko dira, hiriaren morfologia analizatzea helburu. Ondoren, hiriak izandako bilakaera landuko da, hasieratik egun den hiri bihurtu arte. Metropoli-guneak aztertuko dira, hiriaren funtzioak, lurrazalaren erabilerak, hirien egitura funtzionala, eta bertako arazo sozial, ekonomiko nahiz ingurumenekoak.

Edukiak:

- 1.- Hiriaren morfologia
- 2.- Hirigintza-prozesua
- 3.- Hiriaren funtzioak.
- 4.- Lurrazalaren erabilerak eta hirietako egitura funtzionala
- 5.- Euskadiko hiri-sistema.
- 6.- Hiriko arazo sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak.

Lan-prozedurak:

- Hiri-planoen azterketa eta interpretazioa.
- Hirien aireko fotografien azterketa eta interpretazioa.
- Gaikako mapen azterketa eta interpretazioa (hiri-sareen mapak, hiriak eta hiriguneak...).
- Grafikoen azterketa eta interpretazioa (hiriko eta landa-guneko biztanleriak Espainian izan duen bilakaera XX. mendean...).
- Gaiari buruzko testuak irakurri eta horien iruzkina egitea.

### 10. Ikasketa Unitatea: ESTATU ESPAINIARREKO ETA EUSKADIKO LURRALDEAREN ANTOLAKUNTZA 1978KO KONSTITUZIOAREN GARAIA (7 ordu)

Unitate hau 1978ko Konstituzioaz geroztik jaiotako autonomia-erkidegoen garaitik hasten da. Ondoren Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua eta Nafarroako Foruaren hobekuntza aztertuko dira. Azkenik, unitatearen amaieran autonomia-erkidegoetako desoreka sozial eta ekonomikoak aztertuko dira.

Edukiak:



1.- Autonomia-erkidegoak 1978ko Konstituzioaren garaian. Eskualdeak bereizteko mota ezberdinak

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua

3.- Desoreka ekonomiko eta sozialak:

- Langabezia.
- Per capita errenta eta biztanleria ekonomia-sektoreen arabera banatzea.
- Garapen-maila altuko guneak.
- Zabalkuntza ekonomikoko guneak.
- Azpiegiturak.
- Komunikabideen sarea.

Lan-prozedurak:

- Autonomia-erkidegoak mapa mutu batean kokatzea.
- Autonomia-erkidegoetako gaikako mapak aztertu eta interpretatzea (per capita errenta, langabezia, azpiegiturak, komunikabide-sarea...).
- Grafikoak edo segida estatistikoak aztertu eta interpretatzea: autonomia-erkidegoetako biztanleria aktiboa banatzea ekonomia-sektoreen arabera,...
- Gaiari buruzko testuak irakurri eta horien iruzkina egitea.

## **11. Ikasketa Unitatea: EUROPAR BATASUNA (9 ordu)**

Hasteko, Europar Batasuna sortzeko prozesuaren aldiak eta etorkizuneko egitasmoak aztertuko dira. Ondoren, batasuneko erakunde nagusiak aztertuko dira, baita politika bateratuak ere, gizarte, industria, ingurumen nahiz garraio mailan, eta eskualde politikak. Bada atal bat, "Espainia eta Euskadi Europar Batasunean" gaia aztertzen duena. Azken gaiak "Europa globalizazioaren aurrean" gaia ukitzen du.

Laugarren ikasketa unitatean bada Europar Batasunari eta lehen sektoreari buruzko atal bat, Espainiari eta Euskadiri erreferentzia egiten diona.

Edukiak:

1.- Europar Batasuneranzko prozesua

2.- Batasuneko erakundeak:

- Europako Kontseilua.
- Europako Parlamentua.
- Europako Batzordea.
- Justizia Auzitegia.

3.- Politika bateratuak:

- Gizarte-politika.
- Ingurumen-politika.
- Garraioari buruzko politika.
- Eskualde-politika eta egitura-fondoak.
- Espainia eta Euskadi Europar Batasunean.

4. - Europa globalizazioaren aurrean

Lan-prozedurak:

- Mapa mutu batean Europar Batasuneko herrialdeak identifikatzea.



- Gaiari buruzko testuak irakurri eta horien iruzkina egitea.

